

EUSKARAREN EGOERA NAFARROAN

Azterketa Soziolinguistikoa, 2013

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUA

OHAR METODOLOGIKOAK. FITXA TEKNIKOAK

AZTERKETAREN HELBURU NAGUSIA

- Azterketa honen helburua da euskarak Nafarroan eta hizkuntza-eremuetan zer egoera duen aztertzea, informazio eguneratua jasotzeko 15 urte edo gehiagoko Nafarroako biztanleen euskararen ezagutzari buruz eta erabilerari buruz, hala nola jakiteko herritarrek zer jarrera dituzten administrazio publikoek hartzen dituzten sustatze-neurrien inguruan. Hala, Euskararen Foru Legearen 5.3. artikulua ezartzen duen mandatua ere betetzen da: Nafarroako Gobernuak aldi-aldi euskararen errealitate soziolinguistikoaren azterketak egiteko aginduko du.

XEHETASUN-HELBURUAK

- Nafarroako Foru Erkidegoan bizi diren 15 urtetik aurrerako biztanleen hizkuntza-gaitasuna ezagutzea: gaitasunak, errazen hitz egiten den hizkuntza, eta hizkuntza-gaitasuna beste hizkuntza batzuetan.
- Hizkuntzaren transmisioa aztertzea: lehen hizkuntza, elebidunen azterketa, eta hizkuntzaren transmisiorako esparruak (familia-transmisioa, hezkuntza-sistemaren bidezko transmisioa).
- Euskararen presentzia eta erabilera aztertzea familian, hurbileko komunitatearekiko harreman sozialetan, eta esparru formalean (udal administrazioan, foru administrazioan, Estatuaren administrazioan...).
- Jakitea zein diren herritarrek dituzten jarrerak eta interesa euskara sustatzeari buruz, bai orokorrean bai esparru desberdinetan. Jakitea nola baloratzen duten euskararen presentzia administrazioaren jarduketetan, irakaskuntzan, komunikabideetan, sare sozialetan, aisialdiko jardueretan, lanean eta bestelakoetan.
- Konparatzea 2013an egindako azterketaren emaitzak eta 2008an egin zen azterketako datuak, helburua izanik herritarrei aurkeztea zein den Nafarroan bost urte hauetan izan den garapena, teknikoki posible izan den neurrian, galderetan aldaketak baitaude.

METODOLOGIA

- Azterketaren planteamendua bat dator azterketa-metodologiaren eta analisi kuantitatiboaren garapenarekin. Zehazki, telefono-elkarrizketa izan da informazioa jasotzeko teknika, CATI sistemaren bidezkoa (Computer Aided Telephone Interview), galdeketa erdiegituratu baliaturik, hau da, galdera itxiak eta irekiak erabiliz.
- Azterketaren unibertsoa Nafarroako Foru Erkidegoan bizi diren biztanleak izan dira, telefono finkoa dutenak (Nafarroako Informazio Gizartearen datuen arabera, Nafarroako Foru Erkidegoa etxeetako % 99,1). Azterketaren helburua izan den publikoa Nafarroako Foru Erkidegoan bizi diren 15 urtetik gorako biztanleak izan dira.
- Euskarabideak-Euskararen Nafar Institutuak, pertsona titularren eta ordezkoren lagin bat eman zuen 2013ko azterketarako, aldaketarik onartu gabe. Erabilitako laginketa-mota laginketa geruzatua izan da. 15 geruza hartu dira kontuan, abiaburutzat harturik hizkuntza-eremuak, 3 eremu, eta adin-tarteak: 15-24 urte bitartean, 25-34 urte bitartean, 35-54 urte bitartean (txostenean geruza hau bi tartetan bereizi da: 35-44 eta 45-54 urte bitartean), 55-64 urte bitartean eta 65 urtetik gorakoak. Geruza bakoitzean, ausazko laginketa bakun bat egin da.

2.786 telefono-elkarrizketa egin dira. Horrek gutxi gorabehera laginaren % 1,9ko errore-marjina du (% 95,5eko konfiantza-maila baterako, $2\sigma \mu\text{-}\rho\epsilon\kappa\iota\kappa\omicron$, $p=q=0,5$ izanik), talde honi buruz egin nahi diren estimazio guztietarako. 2013ko telefono-inkestaren ondoriozko laginaren banaketa honako hau izan da:

2013AN EGINDAKO INKESTARAKO LAGINAREN BANAKETA

		GUZTIRA	ADINA				
			15-24 urte	25-34 urte	35-54 urte	55-64 urte	64 urtetik gora
HIZKUNTZA-EREMUAK	Euskalduna	1.252	190	223	337	197	305
	Mistoa	1.072	254	171	271	150	226
	Ez- euskalduna	462	76	70	161	59	96
	Guztira	2.786	520	464	769	406	627

EMAITZEN GORAPEN-PROZESUA

- 2013ko azterketako (QUOR enpresak egin) emaitzak ustiatzeak honako gorapen-prozesu hau izan du kontuan:
 - 15 urtetik gorako biztanleak, familia-etxebizitzetan bizi direnak, Nafarroako Estatistika Institutuak emandako 2011ko eroldaren azken datuen arabera: 40.537 pertsona.
 - Inkestak goratzeko kontuan hartu dira Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzeko banaketa (7 gunen), 5 adin-talde eta sexua; guztira, 70 gorapen-faktore.
- 2008ko azterketako (Ikertalde enpresak egin) datuetarako, emaitzak ustiatzeko honako gorapen-prozesu hau izan du kontuan:

- 15 urtetik gorako biztanleak, familia-etxebizitzetan bizi direnak, 2008ko eroldaren datuen arabera: 503.331 pertsona.

Gainera, 2008ko eta 2013ko datuak konparatzeko, 2008ko azterketa soziolinguistikoarekin argitaratu ziren emaitzak 2013an ezarritako tipologiaen arabera berrantolatu dira: elebiduna, elebidun hartzailea eta erdalduna.

Horiek dira Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostu ziren tipologiai, 2012ko uztailaren 5eko linguistikaren inguruko lankidetzeta-hitzarmena garatzeko, bi erkidegoen analisi soziolinguistikoak konparatu ahal izateko. Gainera, Nafarroako Mapa Soziolinguistikoan erabilitako tipologia bera ere bada.

2008ko datu-basean beharrezko aldaketak egindakoan, bi inkestak aztertu dira, honako hauek kontuan hartuta:

- 2013ko eta 2008ko berdina diren galderak, eta hartara, bilakaera ikusteko aukera ematen dutenak.
- 2013ko eta 2008ko parekagarriak edo antzekoak diren galderak, eta hartara, arrazoizko konparazioa egiteko aukera ematen dutenak.
- 2013ko eta 2008ko konparatu ezin diren galderak, baina bi azterketetako emaitzak, taulak edo grafikoak aurkeztuta, irakurleari antzeko egoeren gaineko ideia eman diezaioketenak. Kasu horretan informazioa emango da soilik, baloraziorik edo interpretaziorik egin gabe.

- Konparatu ez diren beste galdera batzuk, desberdinak direlako edo inkestetako batean edo bestean egin ez zirelako.

1.- BIZTANLEAK: AZTERTUTAKO UNIBERTSO SOZIOLOGIKOAREN EZAUGARRIAK

Nafarroako Foru Erkidegoan, 2013an, 640.134 pertsona bizi dira. Horietatik 540.536 pertsonak 15 urte edo gehiago dituzte (2013. urteko inkesta soziolinguistikoaren aztergaiak). Biztanleen % 10,7 eremu euskaldunean bizi dira, % 55,9 eremu mistoan, eta % 33,4 eremu ez-euskaldunean.

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza-eremua		
		EREMU EUSKALDUNA	EREMU MISTOA	EREMU EZ-EUSKALDUNA
2013 urtea	540.537	% 10,7	% 55,9	% 33,4

Generoaren arabera banaketa orekatuta dago: eremu mistoan emakumeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, eta eremu euskaldunean eta ez-euskaldunean, gizonak emakumeak baino gehiago dira.


1. TAULA. AZTERGAI DIREN BIZTANLEEN BANAKETA, GENEROAREN ARABERA (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza-eremua		
		Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna
Gizonak	% 49,6	% 52,7	% 48,0	% 51,3
Emakumeak	% 50,4	% 47,3	% 52,0	% 48,7

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Azterketa honetan parte hartu duten 15 urte edo gehiagoko biztanleen batez besteko adina 46,8 urtekoa da. Eremu euskalduneko biztanleen batez besteko adina beste bi eremuetakoa baino zerbait handiagoa da.

1. GRAFIKOA. AZTERKETA HONETAN PARTE HARTU DUTEN 15 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLEEN BATEZ BESTEKO ADINA (URTEEN BATEZ BESTEKO)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Biztanleen adin-tartekako bilakaerak zahartzeko joera adierazten du; joera hori zerbait handiagoa da eremu euskaldunean.

2. TAULA. 15 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLEAK, ADINAREN ETA HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA (%) 2008 eta 2013 URTEAK

	Nafarroako Foru Komunitatea		Hizkuntza-eremua					
			Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu ez-euskalduna	
	2008 (n= 3.596)	2013 (n= 2.786)	2008 (n = 1.065)	2013 (n = 1.252)	2008 (n = 1.004)	2013 (n = 1.072)	2008 (n = 1.527)	2013 (n = 462)
15-24 urte	% 12,2	% 11,4	% 11,5	% 9,7	% 12,4	% 12,1	% 12,0	% 10,7
25-34 urte	% 19,6	% 16,8	% 18,0	% 15,3	% 20,4	% 17,6	% 18,7	% 16,1
35-44 urte	% 19,6	% 20,0	% 20,0	% 19,6	% 20,9	% 19,9	% 17,6	% 20,3
45-54 urte	% 15,7	% 17,2	% 14,6	% 17,4	% 14,9	% 17,1	% 17,3	% 17,4
55-64 urte	% 12,9	% 13,4	% 13,3	% 14,4	% 13,4	% 13,1	% 12,1	% 13,5
65 urtetik gora	% 20,0	% 21,2	% 22,6	% 23,7	% 18,0	% 20,2	% 22,3	% 22,0

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Nafarroako Foru Erkidegoko euskararen egoerari buruzko txosten honen analisiaren ardatz nagusiak hobeto interpretatzearren, beste aldagai soziodemografiko interesgarri batzuk aipatuko ditugu.

- 15 urte edo gehiago duten biztanleen % 35,4k batxilergoko, Erdi Mailako Zikloko edo Goi Mailako Zikloko ikasketak ditu.
- 15 urte edo gehiago duten biztanleen % 28,6k goi-mailako edo unibertsitateko ikasketak egin ditu. Zehazki, unibertsitateko ikasketak dituzten biztanleen proportzio hori nabarmenagoa da eremu mistoan (% 33,7), beste bietan baino (eremu euskaldunean % 22,0 eta eremu ez-euskaldunean % 22,3).

3. TAULA. 15 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLEAK, IKASKETA-MAILAREN ETA HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza-eremua		
		Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna
Haur eta Lehen Hezkuntza	% 16,1	% 16,1	% 11,9	% 23,3
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	% 18,9	% 24,3	% 14,9	% 23,9
Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	% 35,4	% 36,9	% 38,7	% 29,5
Diploma	% 9,6	% 8,9	% 11,5	% 6,6
Lizentzia	% 14,0	% 10,3	% 17,1	% 10,0
Graduondokoa, Doktoregoa, Masterra	% 5,0	% 2,8	% 5,0	% 5,6
Ez du zehaztu	% 0,9	% 0,8	% 0,8	% 1,1

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

- Lehen mailako ikasketak dituzten nafarren % 71,6k G eremuan ikasi du (gaztelania da komunikazio-hizkuntza irakaskuntzan, eta euskara ez da irakasgai), % 8,5ek Haur

Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza D ereduaren egin izana adierazi du (euskara da komunikazio-hizkuntza irakaskuntzan, eta gaztelania irakasgai), edo B ereduaren (irakasgaietako gehienak euskaraz ematen dira, gaztelania irakasgai da, baita komunikazio-hizkuntza ere irakasgai batean edo bitan).

- D (B) ereduaren nabarmenagoa da adin txikiagoko geruzetan.

4. TAULA. HIZKUNTZA-EREDUA, LEHEN MAILAKO EDO ERDI MAILAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Hizkuntza-eredua				
	A	D (B)	G	Ikasgai batzuk atzerriko hizkuntzaz	Ez du zehaztu
Haur eta Lehen Hezkuntza	% 13,8	% 8,5	% 71,6	% 2,4	% 3,8
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	% 7,3	% 7,4	% 59,6	% 2,6	% 23,1
Batzilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	% 6,1	% 5,3	% 47,9	% 2,1	% 38,5

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Inkestatutako pertsonen egoitza-antzinatasuna dela eta, hala 2008an nola 2013an, biztanleen % 73 Nafarroan jaio dela ikusten da. Proportzio hori zerbait handiagoa da eremu euskalduneari (% 81,8), besteetan baino. Nafarroan bizitzen 10 urte baino gehiago daramaten pertsonak % 15,5 ziren 2008an, eta % 18,3 2013an.

5. TAULA. EGOITZA-ANTZINATASUNA NAFARROAKO FORU ERKIDEGOAN, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea		Hizkuntza-eremua					
			Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu ez-euskalduna	
	2008 (n = 3.596)	2013 (n = 2.786)	2008 (n = 1.065)	2013 (n = 1.252)	2008 (n = 1.004)	2013 (n = 1.072)	2008 (n = 1.527)	2013 (n = 462)
Nafarroako Foru Komunitatean jaioa	% 73,2	% 73,3	% 81,2	% 82,1	% 71,3	% 71,8	% 74,1	% 73,0
10 urte baino gehiago	% 15,4	% 18,3	% 12,1	% 13,0	% 16,3	% 19,6	% 14,7	% 17,7
6-10 urte	% 5,4	% 5,6	% 3,0	% 2,9	% 6,0	% 5,7	% 5,1	% 6,2
2-5 urte	% 4,9	% 2,7	% 2,3	% 1,9	% 5,4	% 2,7	% 4,7	% 2,8
Urte 1 baino gutxiago	% 1,1	% 0,2	% 1,4	% 0,1	% 0,9	% 0,1	% 1,4	% 0,2

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Inkestatutako pertsonen aitaren eta amaren jatorria dela eta, 2008tik 2013rako bilakaerak honako hau adierazi du:

- 2013ko inkestan parte hartu duen 15 urte edo gehiagoko biztanleen % 60,1ek esan du bere aita Nafarroako Foru Erkidegoan jaio zela. Zehazki, 2008. urteko azterketa soziolinguistikoa baino ehuneko 2,7 puntu gutxiago. Eremu euskalduneari

antzematen da beren aita eta ama Nafarroako Foru Erkidegoan jaio zela adierazi duten pertsonen ratio handiagoa.

- % 62,1ek esan du bere ama Nafarroako Foru Erkidegoan jaio zela, 2008ko azterketa soziolinguistikoan baino 1,7 puntu gutxiago (% 63,8).

6. TAULA. AITAREN ETA AMAREN JATORRIA, HIZKUNTZA-A-EREMUAREN ARABERA. 2008 eta 2013 URTEAK

	Nafarroako Foru Komunitatea 2008		Hizkuntza-eremua 2008					
			Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu ez-euskalduna	
	Aita	Ama	Aita	Ama	Aita	Ama	Aita	Ama
Nafarroako Foru Komunitatean	% 62,8	% 63,8	% 73,0	% 75,6	% 60,0	% 60,7	% 64,6	% 65,4
Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo	% 37,2	% 36,2	% 27,0	% 24,4	% 40,0	% 39,3	% 35,4	% 34,6
	Nafarroako Foru Komunitatea 2013		Hizkuntza-eremua 2013					
			Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu ez-euskalduna	
	Aita	Ama	Aita	Ama	Aita	Ama	Aita	Ama
Nafarroako Foru Komunitatean	% 60,1	% 62,1	% 71,5	% 74,4	% 56,8	% 59,3	% 62,2	% 62,8
Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo	% 39,9	% 37,9	% 28,5	% 25,6	% 43,2	% 40,7	% 37,8	% 37,2

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

2.- HIZKUNTZA JAKITEA

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen hizkuntza-gaitasunaren analisiari ekiteko abiaburua izan da norberak zer dioten dakien euskarari buruz, lau trebetasun hauek aintzat harturik: ahozko ulermena, mintzamina, irakurmena eta idazmena.

Inkestatutako biztanleek emandako informazio hori laburtzeko asmoz, hiru maila ezarri dira hizkuntza-gaitasunari dagokionez:

- Elebidunak: euskara eta gaztelania ongi hitz egin eta ulertzen dutela aitortu dutenak.
- Elebidun hartzaileak: gaztelaniaz gainera, euskara ere ulertzen dutenak, nahiz eta ez duten hitz egiten edo hitz egiteko zailtasunak dituzten.
- Erdaldunak: euskara hitz egiten eta ulertzen ez dutenak.

2.1. BIZTANLEEN HIZKUNTZA-JAKINTZA

2.1.1. HIZKUNTZA-GAITASUNA

Nafarroako Foru Erkidegoko 15 urte edo gehiagoko inkestatutako biztanleen %13,7k elebiduntzat jotzen du bere burua, % 8,4k elebidun hartzailetzat, eta % 77,8k erdalduntzat.

Eremu euskalduna da elebidun-portzentaje handiena duen eremua (% 56,3). Eremu mistoan, elebidun-portzentajea % 11,9koa da. Azkenik, eremu ez-euskaldunean, elebidunen portzentajea % 3,1koa da.

7. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza-eremua		
		Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna
Elebidunak	% 13,7	% 56,3	% 11,9	% 3,1
Elebidun hartzaileak	% 8,4	% 11,4	% 10,3	% 4,2
Ez euskaldunak	% 77,8	% 32,3	% 77,9	% 92,7

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanle elebidunen kopurua handitu egin da 2008tik 2013ra, termino absolutuetan, ehuneko 1,8 puntu (2008ko oinarriarekin konparatuta, % 15,3 handitu da). Biztanle elebidunen hazkunde nabarmenena eremu mistoan ageri da: 2008an % 9,9 ziren eta 2013an, berriz, % 11,9. Bestalde, eremu euskaldunean, biztanle elebidunen ratioa zerbait jaitsi dela antzematen da (2008ko % 57,6tik 2013ko % 56,3ra).

Elebidun hartzaileak direla eta, horietan ere 1,6 puntuko igoera ageri da Nafarroako Foru Erkidegoan. Igoera hori, batez ere, eremu mistoan gertatu da (ehuneko 3,4 puntu). Bestalde, eremu ez-euskaldunean elebidun hartzaileen jaitsiera ageri da, 1,6 puntukoa.

8. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea		Hizkuntza-eremua					
			Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu ez-euskalduna	
	2008 (n=3.596)	2013 (n=2.786)	2008 (n=1.065)	2013 (n=1.252)	2008 (n=1.004)	2013 (n=1.072)	2008 (n=1.527)	2013 (n=462)
Elebidunak	% 11,9	% 13,7	% 57,6	% 56,3	% 9,9	% 11,9	% 2,5	% 3,1
Elebidun hartzaileak	% 6,8	% 8,4	% 10,4	% 11,4	% 6,9	% 10,3	% 5,8	% 4,2
Ez euskaldunak	% 81,3	% 77,8	% 32,0	% 32,3	% 83,2	% 77,9	% 91,7	% 92,7

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

2013ko hizkuntza-gaitasunaren analisiak, **adinaren arabera**, honako hau adierazten du:

- Batetik, adin-tarte gazteagoetan, 45 urte baino gutxiagokoetan, ageri da elebidun gehiago.
- Bestetik, 45 urte edo gehiagoko adin-tarteetan, Nafarroako Foru Erkidegoko elebidunen batez bestekoa baino ratio txikiagoa antzematen da.

9. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Adina					
		15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Elebidunak	% 13,7	% 23,5	% 19,2	% 16,2	% 8,3	% 10,9	% 7,9
Elebidun hartzaileak	% 8,4	% 9,7	% 8,2	% 11,1	% 7,5	% 6,1	% 7,4
Ez euskaldunak	% 77,8	% 66,8	% 72,7	% 72,7	% 84,2	% 83,0	% 84,7

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Adinaren arabera hizkuntza-gaitasunaren bilakaeraren analisiaren arabera ere emaitzak bereizleak dira:

- Batetik, adin-tarte gazteagoetan, 45 urte baino gutxiagokoetan, ageri da elebidunen hazkunde handiagoa.
- Alderantziz, 45 urtetik aurrerakoetan elebidunen geldialdi bat antzematen da.

10. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea		Adina											
			15-24 urte		25-34 urte		35-44 urte		45-54 urte		55-64 urte		65 urtetik gora	
	2008 (n = 3.596)	2013 (n = 2.786)	2008 (n = 651)	2013 (n = 520)	2008 (n = 766)	2013 (n = 464)	2008 (n = 567)	2013 (n = 411)	2008 (n = 422)	2013 (n = 358)	2008 (n = 559)	2013 (n = 406)	2008 (n = 631)	2013 (n = 627)
Elebidunak	% 11,9	% 13,7	% 19,8	% 23,5	% 13,1	% 19,2	% 13,0	% 16,2	% 10,0	% 8,3	% 9,6	% 10,9	% 7,7	% 7,9
Elebidun hartzaileak	% 6,8	% 8,4	% 10,0	% 9,7	% 7,2	% 8,2	% 8,1	% 11,1	% 8,4	% 7,5	% 8,9	% 6,1	% 0,7	% 7,4
Ez euskaldunak	% 81,3	% 77,8	% 70,1	% 66,8	% 79,7	% 72,7	% 78,9	% 72,7	% 81,6	% 84,2	% 81,6	% 83,0	% 91,6	% 84,7

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Hizkuntza-eremuaren eta adinaren arabera hizkuntza-gaitasunaren analisiak honako datu hauek eman ditu:

Eremu euskaldunean hizkuntza-gaitasuna gorantz doa gazteagoetan.

Eremu mistoan elebidunen ehunekoa 45 urte baino gutxiago dutenen tartean, eremuko elebidunen batez bestekoa baino handiagoa da.

Eremu euskalduneko elebidun hartzaileek behera egin dute 35 urte baino gutxiagoko tartean (24 baino gutxiago, nahiz eta, aldi berean, 4,1 puntuko igoera ageri den elebidunen artean). Eremu mistoan eta ez-euskaldunean, aldiz, elebidun hartzaileen kopuruak gora egin du 15etik eta 24 urtera bitartekoen tartean.

Lortutako ikasketa-mailaren arabera hizkuntza-gaitasuna dela eta, honako hauek dira emaitza esanguratsuenak: alde batetik, elebidun gehiago ageri da hala diplomatura-ikasketak bukatu dituztenen artean, nola lizentzia lortu dutenen artean; bestetik, elebidun-kopurua txikiagoa da bukatutako ikasketei dagozkien aldagaiaren muturretan (lehen mailako ikasketak, graduondoko ikasketak, doktoregoa, masterra) batez bestekoa baino.

11. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Bukatutako ikasketak					
		Haur eta Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	Diploma	Lizentzia	Postgrado, Doctorado, Master
Elebidunak	% 13,7	% 7,5	% 11,8	% 14,6	% 21,7	% 19,1	% 6,1
Elebidun hartzaileak	% 8,4	% 3,6	% 7,8	% 10,2	% 12,4	% 6,6	% 11,4
Ez euskaldunak	% 77,8	% 88,9	% 80,4	% 75,2	% 65,9	% 74,3	% 82,5

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzea kontuan hartuta, Ipar-mendebaldeko biztanleen % 63,2 elebiduntzat jo daiteke; Goi Erriberan edo Tuteralean, aldiz, elebidunen ratioak ez du % 1 gainditzen (% 0,6 eta % 1,0, hurrenez hurren).

Azkenik, 2008tik 2013rako euskararen jakintzaren bilakaerak ageri duenez, elebidunen hazkundera, termino absolutuetan, errazago hauteman daiteke Ipar-mendebaldean (ehuneko 5,2 puntu), Pirinioaldean (ehuneko 4,5 puntu) eta Iruñerrian (ehuneko 2,4 puntu).

12. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, NAFARROAKO 2000. URTEKO ESKUALDEKATZEAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%). 2008 eta 2013 URTEAK

	Nafarroako Foru Komunitatea Año 2008 (n = 3.596)	2000. urteko Nafarroako eskualdekatzea						
		Ipar-mendebalde (n = 965)	Pirinioaldea (n = 213)	Iruñaldea (n = 1.690)	Estellerría (n = 390)	Ekialdeko Erdialdeko Nafarroa (n = 79)	Erribera Garaia (n = 86)	Tuteralea (n = 173)
Elebidunak	% 11,9	% 57,9	% 14,9	% 9,5	% 6,7	% 5,5	% 1,9	% 0,5
Elebidun hartzaileak	% 6,8	% 9,7	% 13,0	% 7,1	% 8,2	% 11,5	% 2,4	% 3,3
Ez euskaldunak	% 81,3	% 32,3	% 72,1	% 83,4	% 85,1	% 83,0	% 95,6	% 96,1
	Nafarroako Foru Komunitatea Año 2013 (n = 2.786)	2000. urteko Nafarroako eskualdekatzea						
		Ipar-mendebalde (n = 1.150)	Pirinioaldea (n = 149)	Iruñaldea (n = 1.002)	Estellerría (n = 108)	Ekialdeko Erdialdeko Nafarroa (n = 72)	Erribera Garaia (n = 140)	Tuteralea (n = 165)
Elebidunak	% 13,7	% 63,2	% 19,5	% 12,0	% 7,3	% 8,2	% 0,6	% 1,0
Elebidun hartzaileak	% 8,4	% 10,5	% 14,7	% 10,2	% 9,6	% 8,5	% 1,8	% 2,5
Ez euskaldunak	% 77,8	% 26,3	% 65,9	% 77,8	% 83,1	% 83,2	% 97,6	% 96,5

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

2.1.2. HIZKUNTZA-TREBETASUNAK: AHOZKO ULERMENA, MINTZAMENA, IRAKURMENA ETA IDAZMENA EUSKARAZ

Inkestan, halaber, biztanleen euskara mailaz ere galdetu da, euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko edo idazteko duten maila erreferentzia hartuta. Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen erantzunaren arabera, euskararen ahozko ulermen-ratio handiagoa dute (% 16,2), beste trebetasunetako baina (mintzamenean % 13,6, irakurmenean % 13,4 eta idazmenean % 11,9).

Ratio horiek, eremu euskaldunean, ia halako lau dira (ulermenean % 61,6, mintzamenean % 56,2, irakurmenean % 44,0 eta idazmenean % 38,7); eremu ez-euskaldunean, aldiz, bosten bat txikiagotzen dira (ulermenean % 3,3, mintzamenean % 3,1, irakurmenean % 3,9 eta idazmenean % 3,4).

13. TAULA. EUSKARA JAKITEA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEKO BIZTANLEAK 2013 (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna
ULERTZEN DU				
Ongi	% 16,2	% 61,6	% 15,2	% 3,3
Zertxobait	% 12,7	% 15,1	% 13,7	% 10,4
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 70,4	% 23,1	% 70,7	% 85,2
Ez du zehaztu	% 0,7	% 0,1	% 0,5	% 1,1
HIZT EGITEN DU				
Ongi	% 13,6	% 56,2	% 11,8	% 3,1
Zertxobait	% 8,3	% 11,0	% 10,1	% 4,3
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 77,2	% 31,8	% 77,4	% 91,4
Ez du zehaztu	% 0,9	% 0,9	% 0,7	% 1,3
IRAKURTZEN DU				
Ongi	% 13,4	% 44,0	% 13,2	% 3,9
Zertxobait	% 7,2	% 16,0	% 6,8	% 5,1
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 78,4	% 38,3	% 79,3	% 89,8
Ez du zehaztu	% 1,0	% 1,7	% 0,7	% 1,3
IDAZTEN DU				
Ongi	% 11,9	% 38,7	% 11,9	% 3,4
Zertxobait	% 7,0	% 15,2	% 6,7	% 4,8
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 80,1	% 44,3	% 80,6	% 90,6
Ez du zehaztu	% 1,0	% 1,8	% 0,7	% 1,3

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

2008ko eta 2013ko azterketak konparatzean, Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleek bilakaera positiboa eta antzekoa agertzen dute euskaraz ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko trebetasunetan (ehuneko 2 puntu inguruko hazkundera).

Hazkunde hori finkatuta dago, batez ere, eremu mistoan. Eremu euskaldunean, geldialdia antzematen da. Azkenik, eremu ez-euskaldunean, 2008ko ratioen arabera hazkundeak ez du trebetasunetako batean ere % 1 gaitzen.

14. TAULA. EUSKARA JAKITEA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%). 2008 eta 2013 URTEAK

	Nafarroako Foru Komunitatea		Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu ez-euskalduna	
	2008 (n=3.596)	2013 (n=2.786)	2008 (n=1.065)	2013 (n=1.252)	2008 (n=1.004)	2013 (n=1.072)	2008 (n=1.527)	2013 (n=462)
ULERTZEN DU								
Ongi	% 14,0	% 16,2	% 63,8	% 61,6	% 11,4	% 15,2	% 4,5	% 3,3
Zertxobait	% 7,6	% 12,7	% 10,0	% 15,1	% 8,7	% 13,7	% 5,1	% 10,4
Hitz batzuk besterik ez	% 78,4	% 70,4	% 26,2	% 23,1	% 79,9	% 70,7	% 90,4	% 85,2
Ez du zehaztu	---	% 0,7	---	% 0,1	---	% 0,5	---	% 1,1
HITZ EGITEN DU								
Ongi	% 11,9	% 13,6	% 57,6	% 56,2	% 9,9	% 11,8	% 2,5	% 3,1
Zertxobait	% 6,2	% 8,3	% 8,8	% 11,0	% 6,6	% 10,1	% 5,0	% 4,3
Hitz batzuk besterik ez	% 81,9	% 77,2	% 33,6	% 31,8	% 83,5	% 77,4	---	% 91,4
Ez du zehaztu	---	% 0,9	---	% 0,9	---	% 0,7		% 1,3
IRAKURTZEN DU								
Ongi	% 10,6	% 13,4	% 44,0	% 44,0	% 9,3	% 13,2	% 3,3	% 3,9
Zertxobait	% 5,5	% 7,2	% 14,1	% 16,0	% 6,0	% 6,8	% 2,4	% 5,1
Hitz batzuk besterik ez	% 83,9	% 78,4	% 41,9	% 38,3	% 84,6	% 79,3	% 94,3	% 89,8
Ez du zehaztu	---	% 1,0	---	% 1,7	---	% 0,7	---	% 1,3
IDAZTEN DU								
Ongi	% 9,5	% 11,9	% 38,4	% 38,7	% 8,9	% 11,9	% 2,5	% 3,4
Zertxobait	% 5,0	% 7,0	% 14,9	% 15,2	% 5,0	% 6,7	% 2,3	% 4,8
Hitz batzuk besterik ez	% 85,5	% 80,1	% 46,7	% 44,3	% 86,1	% 80,6	% 95,2	% 90,6
Ez du zehaztu	---	% 1,0	---	% 1,8	---	% 0,7	---	% 1,3

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Joera bera baina nabariago ageri da Nafarroako Foru Erkidegoko datuak adin-tarteen arabera aztertzean; euskarazko hizkuntza-trebetasun desberdinak jakitea batez bestekoa baino handiagoa da 45 urte baino gutxiago dutenen artean.

Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzea kontuan hartuta, hizkuntza-trebetasunen arabera euskararen jakintza dela eta, azterketak adierazi du ehunekoak altuagoak direla Ipar-mendebaldeko biztanleen artean, batez ere, euskara mintzatuaren eta ulertuaren jakintzari dagokionez. Ipar-mendebaldeko bi edo hiru nafar inguruk euskaraz ongi ulertzen eta hitz egiten dutela esan dute. Proportzio hori txikitu egiten da euskaraz irakurtzeari eta idazteari dagokionez.

Bigarren, Pirinioaldean bostetik bateko proportzioa ageri da. Hala ere, Ipar-mendebaldeko eremuaren aldean, euskara jakiteko ahalmena (ulertzea, hitz egitea, irakurtzea eta idaztea) homogeenagoa da Pirinioaldean.

Erribera Garaiko eta Tuteraldeko biztanleek euskararen jakite-maila oso baxua ageri dute (% 2koa baino baxuagoa).

15. TAULA. EUSKARA JAKITEA, NAFARROAKO 2000. URTEKO ESKUALDEKATZEAREN ARABERA.
EREMUEN BIZTANLEAK, NAFARROAKO 2000. URTEKO ESKUALDEKATZEAREN ARABERA (%)


	Nafarroako Foru Komunitatea 2013 urtea (n = 2.786)	2000. urteko Nafarroako eskualdekatzea						
		Ipar-mendebalde (n = 1.150)	Pirinioaldea (n = 149)	Iruñaldea (n = 1.002)	Estellerria (n = 108)	Ekialdeko Erdialdeko Nafarroa (n = 72)	Erribera Garaia (n = 140)	Tuteraldea (n = 165)
ULERTZEN DU								
Ongi	% 16,2	% 68,5	% 23,8	% 15,1	% 10,0	% 8,0	% 0,6	% 1,5
Zertxobait	% 12,7	% 12,4	% 25,6	% 13,3	% 17,3	% 19,6	% 8,0	% 7,1
Ezer ez/Hitz batzuk besterik ez	% 70,4	% 18,9	% 50,6	% 71,0	% 72,7	% 70,3	% 90,1	% 90,9
Ez du zehaztu	% 0,7	% 0,1	---	% 0,6	---	% 2,0	% 1,4	% 0,5
HITZ EGITEN DU								
Ongi	% 13,6	% 63,1	% 19,5	% 11,9	% 7,3	% 8,0	% 0,6	% 1,0
Zertxobait	% 8,3	% 10,1	% 14,7	% 10,0	% 9,6	% 8,4	% 1,7	% 2,9
Ezer ez/Hitz batzuk besterik ez	% 77,2	% 26,4	% 63,4	% 77,3	% 83,1	% 81,6	% 95,6	% 95,5
Ez du zehaztu	% 0,9	% 0,4	% 2,5	% 0,8	---	% 2,0	% 2,1	% 0,5
IRAKURTZEN DU								
Ongi	% 13,4	% 48,8	% 18,3	% 13,0	% 10,4	% 12,4	% 0,6	% 1,4
Zertxobait	% 7,2	% 17,3	% 8,9	% 7,0	% 4,8	% 6,5	% 3,4	% 4,8
Ezer ez/Hitz batzuk besterik ez	% 78,4	% 33,0	% 68,5	% 79,2	% 84,8	% 79,1	% 94,0	% 93,2
Ez du zehaztu	% 1,0	% 0,9	% 4,4	% 0,8	---	% 2,0	% 2,1	% 0,5
IDAZTEN DU								
Ongi	% 11,9	% 43,2	% 15,6	% 11,9	% 9,1	% 9,9	% 0,6	% 1,0
Zertxobait	% 7,0	% 16,4	% 8,8	% 6,8	% 6,2	% 7,8	% 2,3	% 4,4
Ezer ez/Hitz batzuk besterik ez	% 80,1	% 39,5	% 71,2	% 80,5	% 84,8	% 80,3	% 95,0	% 94,1
Ez du zehaztu	% 1,0	% 1,0	% 4,4	% 0,8	---	% 2,0	% 2,1	% 0,5

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

2.1.3. BESTE HIZKUNTZA BATZUK JAKITEA

Gaztelaniaz edo euskaraz gain, hamarretik hiru nafarrek esan dute gai direla elkarriketa erraz batean hitz-jarioz jarduteko, gutxienez 15 minutuan, beste hizkuntza batean (nagusiki ingelesez, eta gutxiago, frantsesez).

2. GRAFIKOA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO ERRAZTASUN-MAILA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK
(% ERANTZUN ANITZEKO)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Adierazitakoaren arabera, eremu mistoan ageri da gaztelania eta euskara ez diren beste hizkuntza batzuk dakizkitela dioten biztanleen kopuru handiagoa. Zehazki, eremu mistoko ehunekoak ia bikoiztu egiten du eremu ez-euskaldunekoak, eta nabarmen gainditzen du eremu euskaldunekoak.

16. TAULA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO ERRAZTASUN-MAILA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza- eremua		
		Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna
Bai	% 31,4	% 25,1	% 38,9	% 20,9
Ez	% 68,6	% 74,9	% 61,1	% 79,1

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Biztanle gazteenek, 35 urte baino gutxiagokoek, ageri dute gaztelania eta euskara ez diren beste hizkuntza batzuk erabiltzeko portzentaje handiagoa. Batez ere, gazteenak, 25 urte baino gutxiagokoak, dira esan dutenak elkarriketa batean hitz-jarioz jarduteko gai direla, gutxienez 15 minutuan; 14 urtetik 25era bitarteko hiru gaztetik ia bik (% 64,9). Biztanle helduagoen geruzetan, ehuneko horrek hamarretik bateko proportzioa du.

17. TAULA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO
ERRAZTASUN-MAILA, ADINAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Adina					
		15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Bai	% 31,4	% 64,9	% 48,1	% 36,4	% 24,0	% 15,6	% 11,5
Ez	% 68,6	% 35,1	% 51,9	% 63,6	% 76,0	% 84,4	% 88,5

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Bukatutako ikasketen maila zenbat eta handiagoa izan, gaztelania eta euskara ez diren beste hizkuntzak jakiteko ratioa ere handiagoa da. Zehazki, lizentzia-ikasketak bukatu dituzten nafarren % 59,4k esan du badakizkiela beste hizkuntza batzuk.

18. TAULA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO
ERRAZTASUN-MAILA, BUKATUTAKO IKASKETEN ARABERA. NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Bukatutako ikasketak					
		Haur eta Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	Diploma	Lizentzia	Graduondokoa, Doktoregoa, Masterra
Bai	% 31,4	% 5,7	% 19,3	% 30,6	% 49,5	% 59,4	% 54,6
Ez	% 68,6	% 94,3	% 80,7	% 69,4	% 50,5	% 40,6	% 45,4

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzea kontuan hartuta, Iruñerriko biztanleak dira gaztelania eta euskara ez diren beste hizkuntzak dakizkitenen ratio handiagoa ageri dutenak. Aitzitik, Erribera Garaia da ratio txikiena ageri duen eremua (% 16,6).

19. TAULA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO
ERRAZTASUN-MAILA, NAFARROAKO 2000. URTEKO ESKUALDEKATZEAREN ARABERA.
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	2000. urteko Nafarroako eskualdekatzea						
		Ipar- mendebaldea	Pirinioaldea	Iruñaldea	Estellerria	Ekialdeko Erdialdeko Nafarroa	Erribera Garaia	Tuteraldea
Bai	% 31,4	% 24,6	% 28,1	% 39,5	% 26,5	% 18,1	% 16,6	% 22,0
Ez	% 68,6	% 75,4	% 71,9	% 60,5	% 73,5	% 81,9	% 83,4	% 78,0

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

2.1.4. ERRAZTASUN HANDIAGOAREKIN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleek adierazitako hizkuntza-gaitasuna gorabehera, galdetu zen ea zer hizkuntzatan hitz egiten den errazen, euskara jakitearen beste adierazle bat gehiago delako.

Gaztelania da, inkestatutako biztanleek diotenaren arabera, errazen erabiltzen duten hizkuntza (% 89,8). 15 urte edo gehiagoko biztanleen % 3,0k dio errazago aritzen dela euskaraz.

Biztanle elebidunen kasuan, % 22,2 moldatzen da hobeto euskaraz, eta % 43,3k dio hobeki egiten duela gaztelaniaz.

20. TAULA. ERRAZEN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza- gaitasuna		
		Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Ez euskaldunak
Gaztelaniaz	% 89,8	% 43,3	% 99,9	% 97,1
Euskaraz	% 3,0	% 22,2	---	---
Antzera bi Hizkuntza-etan	% 4,7	% 34,3	---	---
Beste hizkuntza batean	% 2,2	% 0,2	% 0,1	% 2,6
Gaztelaniaz eta atzerriko beste hizkuntza batean	% 0,2	---	---	% 0,3

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eremu euskaldunean, inkestatutako biztanleen % 56,7k erantzun du gaztelaniaz errazago mintzatzen direla euskaraz baino, eta % 23,6k euskaraz errazago aritzen dela.

21. TAULA. ERRAZEN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza- eremua		
		Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu Ez-euskalduna
Gaztelaniaz	% 89,8	% 56,7	% 92,1	% 96,7
Euskaraz	% 3,0	% 23,6	% 0,9	---
Antzera bi hizkuntzetan	% 4,7	% 18,0	% 4,4	% 0,8
Beste hizkuntza batean	% 2,2	% 1,4	% 2,4	% 2,1
Gaztelaniaz eta atzerriko beste hizkuntza batean	% 0,2	% 0,2	% 0,1	% 0,4

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

2.2. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEEN HIZKUNTZA-JAKINTZA

2.2.1. HIZKUNTZA-GAITASUNA

Eremu euskalduneko biztanleen % 56,3 elebiduna da. Biztanle elebidunak errazago hauteman daitezke gazteagoen artean: alde batetik, 25 urte baino gazteagoak, % 82,5eko elebidunekin; bestetik, 25etik 34 urtera bitarteko biztanleak, % 71,5eko elebidunekin.

22. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Adina Eremu euskalduna					
			15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Elebidunak	% 13,7	% 56,3	% 82,5	% 71,5	% 52,3	% 47,5	% 48,9	% 49,9
Elebidun hartzaileak	% 8,4	% 11,4	% 5,7	% 9,7	% 14,1	% 39,8	% 12,7	% 10,7
Ez euskaldunak	% 77,8	% 32,3	% 11,9	% 18,8	% 33,6	% 39,8	% 38,4	% 39,4

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Euskara jakitea, eremu euskalduneko biztanleen hizkuntza-trebetasunak (ahozko ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena) erreferentzia hartuta, 35 urtetik aurrera jaisten da; bereziki nabarmenak dira 64 urtetik gorako pertsonen ratioak.

Eremu euskalduneko 35 urtetik gorako biztanleetan hautematen dira gehien euskararen jakite-maila altua dutenak.

- Eremu euskalduneko 15 eta 24 urte bitarteko biztanleen % 80 baino gehiagok esan du euskaraz ongi ulertzen, hitz egiten, irakurtzen edo idazten duela.
- Eremu euskalduneko 25 eta 34 urte bitarteko biztanleen % 70 baino gehiagok esan du euskaraz ongi ulertzen, hitz egiten, irakurtzen edo idazten duela.

23. TAULA. EUSKARA JAKITEA, ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEN BIZTANLEAK (%)

	Eremu euskalduna	Adina Eremu euskalduna					
		15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
ULERTZEN DU							
Ongi	% 61,6	% 84,1	% 75,5	% 60,2	% 53,4	% 55,2	% 54,4
Zertxobait	% 15,1	% 8,2	% 11,0	% 12,7	% 23,2	% 17,3	% 15,5
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 23,1	% 7,8	% 13,1	% 27,1	% 23,4	% 27,5	% 29,8
Ez du zehaztu	% 0,1	---	% 0,4	---	---	---	% 0,3
HIZT EGITEN DU							
Ongi	56,2%	82,5%	71,3%	52,3%	47,5%	48,9%	49,8%
Zertxobait	% 11,0	% 5,7	% 9,6	% 14,1	% 12,3	% 11,4	% 10,4
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 31,8	% 11,9	% 18,7	% 33,6	% 36,9	% 39,1	% 39,0
Ez du zehaztu	% 0,9	---	% 0,4	---	% 3,3	% 0,5	% 0,8
IRAKURTZEN DU							
Ongi	% 44,0	% 83,0	% 72,7	% 47,2	% 33,5	% 31,6	% 22,1
Zertxobait	% 16,0	% 3,5	% 7,6	% 12,3	% 19,8	% 20,7	% 23,8
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 38,3	% 13,5	% 18,9	% 40,5	% 42,7	% 45,9	% 51,3
Ez du zehaztu	% 1,7	---	% 0,8	---	% 4,0	% 1,8	% 2,8
IDAZTEN DU							
Ongi	% 38,7	% 82,5	% 70,3	% 40,2	% 28,3	% 26,1	% 14,4
Zertxobait	% 15,2	% 4,0	% 9,2	% 16,6	% 16,8	% 19,1	% 19,1
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 44,3	% 13,5	% 19,8	% 43,2	% 51,0	% 52,4	% 63,6
Ez du zehaztu	% 1,8	---	% 0,8	---	% 4,0	% 2,4	% 2,8

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Bestalde, eremu euskaldunen hamarretik sei nafarrek, unibertsitate-ikasketak dituztenek, elebidunak direla erantzun dute.

24. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEN BIZTANLEAK (%)


	Eremu euskalduna	Bukatutako ikasketa-maila Eremu euskalduna					
		Haur eta Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	Diploma	Lizentzia	Graduondokoa, Doktoregoa, Masterra
Elebidunak	% 56,3	% 52,0	% 53,4	% 57,3	% 62,1	% 61,3	% 59,0
Elebidun hartzaileak	% 11,4	% 6,0	% 13,4	% 12,8	% 19,2	% 6,6	% 2,6
Ez euskaldunak	% 32,3	% 42,0	% 33,2	% 29,9	% 18,8	% 32,1	% 38,4

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

2.2.2. BESTE HIZKUNTZA BATZUK JAKITEA

Eremu euskalduneko biztanleen % 25,1ek esan du gai dela elkarrizketa erraz batean hitz-jarioz jarduteko, gutxienez 15 minutuan, beste hizkuntza batean izateko.

3. GRAFIKOA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO ERRAZTASUN-MAILA. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK (% ERANTZUN ANITZEKO)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Biztanle gazteenek, 25 urte baino gutxiagokoek, ia bikoiztu egiten dute gaztelania eta euskara ez diren beste hizkuntza batzuk erabiltzeko ehuneko handiagoa, eremu euskaldunean. Zehazki, eremu euskalduneko 15etik 24 urtera bitarteko biztanleen % 49,7 gai da elkarrizketa batean hitz-jarioz jarduteko, gutxienez 15 minutuan, beste hizkuntza batean.

25. TAULA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO ERRAZTASUN-MAILA, ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Adina Eremu euskalduna					
			15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Bai	% 31,4	% 25,1	% 49,7	% 39,3	% 34,3	% 19,6	% 12,1	% 10,4
Ez	% 68,6	% 74,9	% 50,3	% 60,7	% 65,7	% 80,4	% 87,9	% 89,6

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eremu euskalduneko biztanleen artean, lizentzia-ikasketak bukatuta dituztenak dira gehien esan dutenak gaztelania edo euskara ez diren beste hizkuntza batzuk dakizkitela.

26. TAULA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO ERRAZTASUN-MAILA, BUKATUTAKO IKASKETEN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Bukatutako ikasketak Eremu euskalduna					
			Haur eta Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	Diploma	Lizentzia	Graduondokoa, Doktoregoa, Masterra
Bai	% 31,4	% 25,1	% 11,5	% 11,4	% 25,6	% 41,4	% 62,0	% 33,8
Ez	% 68,6	% 74,9	% 88,5	% 88,6	% 74,4	% 58,6	% 38,0	% 66,2

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

2.2.3. ERRAZEN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA

Gaztelania da, eremu euskaldunean ere, erraztasun handiagorekin mintzatzen den hizkuntza (% 56,7). Euskaraz errazago mintzatzen den biztanleen ehuneko handiena 35 urtetik beherakoan artean ageri da; gaztelania, aldiz, mintzatzeko errazago zaie 35 urtetik gorakoei.

27. TAULA. ERRAZEN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA, ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Adina Eremu euskalduna					
			15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Gaztelania	% 39,8	% 56,7	% 39,0	% 41,7	% 59,0	% 67,4	% 59,9	% 62,0
Euskara	% 5,0	% 23,6	% 32,8	% 38,6	% 18,3	% 13,5	% 23,9	% 21,9
Antzera bi hizkuntzak	% 4,7	% 18,0	% 25,1	% 18,4	% 19,4	% 17,5	% 15,6	% 15,6
Beste hizkuntza bat	% 2,2	% 1,4	% 2,6	% 0,9	% 2,7	% 1,7	% 0,5	% 0,6
Gaztelania eta atzerriko beste hizkuntza bat	% 0,2	% 0,2	% 0,5	% 0,4	% 0,6	---	---	---

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eremu euskalduneko biztanle elebidunei dagokienez, % 42,1ek erantzun du errazago moldatzen dela euskaraz. Bestalde, elebidunen % 25,5ek erantzun du errazago mintzatzen dela gaztelaniaz.

28. TAULA. ERRAZEN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA.
EREMU EUSKALDUNeko BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Hizkuntza- gaitasuna Eremu euskalduna		
			Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Ez euskaldunak
Gaztelania	% 89,8	% 56,7	% 25,5	% 99,2	% 95,9
Euskara	% 3,0	% 23,6	% 42,1	---	---
Antzera bi hizkuntzak	% 1,7	% 18,0	% 32,1	---	---
Beste hizkuntza bat	% 2,2	% 1,4	% 0,4	% 0,8	% 3,4
Gaztelania eta atzerriko beste hizkuntza bat	% 0,2	% 0,2	---	---	% 0,7

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eremu euskalduneko biztanleen ikasketa-mailak ez dio alderdi edo joera bereizlerik ekartzen jada aipatutakoari. Bukatutako ikasketen maila gorabehera, gaztelaniaz mintzatzen dira errazago eremu euskalduneko biztanleak.

29. TAULA. ERRAZTASUN HANDIAGOAREKIN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA, BUKATUTAKO
IKASKETEN ARABERA. EREMU EUSKALDUNeko BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Bukatutako ikasketak Eremu euskalduna					
			Haur eta Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	Diploma	Lizentzia	Graduondokoa, Doktoregoa, Masterra
Gaztelania	% 89,8	% 56,7	% 55,1	% 58,1	% 57,1	% 59,0	% 47,8	% 70,2
Euskara	% 3,0	% 23,6	% 24,6	% 26,5	% 22,0	% 24,1	% 22,9	% 15,9
Antzera bi hizkuntzak	% 1,7	% 18,0	% 19,1	% 14,7	% 18,5	% 15,0	% 26,8	% 13,9
Beste hizkuntza bat	% 2,2	% 1,4	% 1,2	% 0,4	% 2,2	% 1,9	% 1,4	---
Gaztelania eta atzerriko beste hizkuntza bat	% 0,2	% 0,2	---	% 0,2	% 0,1	---	% 1,1	---

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

2.3. EREMU MISTOKO BIZTANLEEN HIZKUNTZA-JAKINTZA

2.3.1. HIZKUNTZA-GAITASUNA

Eremu mistoko biztanleen % 11,9 elebiduna da. Eremu euskaldunean bezala, eremu mistoan ere biztanle elebidunak errazago hautematen dira gazteagoen artean. Hain zuzen, biztanleen adina zenbat eta handiagoa izan, gero eta txikiagoa da biztanle elebidunen kopurua.

30. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu mistoa	Adina Eremu mistoa					
			15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Elebidunak	% 13,7	% 11,9	% 24,5	% 16,8	% 16,3	% 5,1	% 8,4	% 3,4
Elebidun hartzaileak	% 8,4	% 10,3	% 11,2	% 10,2	% 14,0	% 7,5	% 8,5	% 9,6
Ez euskaldunak	% 77,8	% 77,9	% 64,2	% 73,0	% 69,7	% 87,4	% 83,1	% 86,9

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Euskaraz dakitela (ulertzea, hitz egitea, irakurtzea eta idaztea) diotenen kopurua eremu euskaldunean baino txikiagoa bada ere, banatuago dago. Zehazki, adin txikiagokoan geruzak dira, 45 urte baino gutxiagokoak, gehien esan dutenak badakitela euskaraz. Aitzitik, 45 urtetik aurrera, euskara dakitenen portzentajea jaitsi egiten da (ez da % 10 gainditzen inongo adin-tarte edo trebetasunetan).

31. TAULA. EUSKARA JAKITEA, ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)

	Eremu mistoa	Adina Eremu mistoa					
		15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
ULERTZEN DU							
Ongi	% 15,2	% 29,6	% 20,7	% 21,9	% 6,7	% 9,7	% 5,7
Zertxobait	% 13,7	% 14,0	% 11,6	% 15,1	% 12,4	% 16,6	% 13,0
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 70,7	% 56,4	% 67,0	% 62,4	% 79,4	% 73,6	% 81,3
Ez du zehaztu	% 0,5	---	% 0,6	% 0,6	% 1,6	---	---
HIZT EGITEN DU							
Ongi	11,8%	24,5%	16,7%	16,2%	5,0%	8,4%	3,5%
Zertxobait	% 10,1	% 11,2	% 9,0	% 14,0	% 7,4	% 10,6	% 8,7
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 77,4	% 63,8	% 73,7	% 68,6	% 86,0	% 81,0	% 87,8
Ez du zehaztu	% 0,7	% 0,4	% 0,6	% 1,2	% 1,6	---	---
IRAKURTZEN DU							
Ongi	% 13,2	% 28,2	% 18,9	% 19,1	% 4,3	% 8,3	% 3,9
Zertxobait	% 6,8	% 9,6	% 4,1	% 6,9	% 7,2	% 9,0	% 5,5
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 79,3	% 62,3	% 76,3	% 72,8	% 86,9	% 82,6	% 90,2
Ez du zehaztu	% 0,7	---	% 0,6	% 1,2	% 1,6	---	% 0,4
IDAZTEN DU							
Ongi	% 11,9	% 26,5	% 18,4	% 16,2	% 4,3	% 6,9	% 3,1
Zertxobait	% 6,7	% 10,0	% 4,1	% 8,4	% 6,4	% 8,2	% 4,6
Ezer ez edo hitz batzuk besterik ez	% 80,6	% 63,5	% 76,8	% 74,2	% 87,8	% 84,8	% 91,8
Ez du zehaztu	% 0,7	---	% 0,6	% 1,2	% 1,6	---	% 0,4

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Bestalde, eremu mistoan biztanle elebidun gehiago dago diplomatura- edo lizentzia-ikasketak bukatuta dituztenen artean.

32. TAULA. HIZKUNTZA-GAITASUNA, BUKATUTAKO IKASKETA-MAILAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)


	Bukatutako ikasketak Eremu mistoa						
	Eremu mistoa	Haur eta Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	Diploma	Lizentzia	Graduondokoa, Doktoregoa, Masterra
Elebidunak	% 11,9	% 4,6	% 9,0	% 10,9	% 19,7	% 19,0	% 4,5
Elebidun hartzaileak	% 10,3	% 6,1	% 10,2	% 10,7	% 14,6	% 7,0	% 19,9
Ez euskaldunak	% 77,9	% 89,3	% 80,8	% 78,4	% 65,7	% 74,0	% 75,6

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

2.3.2. BESTE HIZKUNTZA BATZUK JAKITEA

Beste hizkuntza batzuk jakitea, gaztelaniaz edo euskaraz gain, eremu mistoan ehuneko altu baten kontua da. Hala, eremu mistoko biztanleen % 40k esan du gai dela elkarriketa erraz batean hitz-jarioz jarduteko, gutxienez 15 minutuan, beste hizkuntza batean.

4. GRAFIKOA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO ERRAZTASUN-MAILA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (% ERANTZUN ANITZEKO)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Biztanle gazteenek, 25 urtetik beherakoek, bikoiztu egiten dute beste hizkuntza bat jakiteko ratio hori. 55 urtetik gora, modu nabarmenean egiten du behera gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat dakitenen kopuruak.

33. TAULA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO ERRAZTASUN-MAILA, ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea Eremu mistoa		Adina Eremu mistoa					
			15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Bai	% 31,4	% 38,9	% 74,6	% 57,8	% 41,3	% 34,5	% 20,4	% 14,2
Ez	% 68,6	% 61,1	% 25,4	% 42,2	% 58,7	% 65,5	% 79,6	% 85,8

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Unibertsitate-ikasketak bukatuta dituzten eremu mistoko biztanleak dira beste hizkuntzak dakizkitela gehien aitortu duen biztanle-segmentua.

34. TAULA. GAZTELANIA EDO EUSKARA EZ DIREN BESTE HIZKUNTZA BATZUK ERABILTZEKO ERRAZTASUN-MAILA, BUKATUTAKO IKASKETEN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu mistoa	Bukatutako ikasketak Eremu mistoa					
			Haur eta Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	Diploma	Lizentzia	Graduondokoa, Doktoregoa, Masterra
Bai	% 31,4	% 38,9	% 3,8	% 29,1	% 34,6	% 55,8	% 59,1	% 76,8
Ez	% 68,6	% 61,1	% 96,2	% 70,9	% 65,4	% 44,2	% 40,9	% 23,2

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

2.3.3. ERRAZEN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA

Gaztelania da eremu mistoko biztanleen ia guztiek hautatutako hizkuntza, erraztasun handiagoaren edo errazago mintzatzen den faktoreari dagokionez.

35. TAULA. ERRAZTASUN HANDIAGOAREKIN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA, ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu mistoa	Adina Eremu mistoa					
			15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Gaztelania	% 89,8	% 92,1	% 87,6	% 84,9	% 92,1	% 94,4	% 94,5	% 97,6
Euskara	% 3,0	% 0,9	% 1,3	% 1,9	---	% 0,8	% 0,7	% 0,9
Antzera bi hizkuntzak	% 4,7	% 4,4	% 10,1	% 7,1	% 4,8	% 1,7	% 4,2	% 0,9
Beste hizkuntza bat	% 2,2	% 2,4	% 1,1	% 5,6	% 3,1	% 3,2	% 0,7	% 0,4
Gaztelania eta beste hizkuntza batzuk	% 0,2	% 0,1	---	% 0,6	---	---	---	% 0,1

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eremu mistoko biztanle elebidunen % 7,5ek esan du euskaraz errazago moldatzen dela, % 37,6k bi hizkuntzetan (gaztelaniaz eta euskaraz), eta % 54,8k gaztelaniaren alde egin du.

36. TAULA. ERRAZEN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu mistoa	Hizkuntza- gaitasuna Eremu mistoa		
			Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Ez euskaldunak
Gaztelania	% 89,8	% 92,1	% 54,9	% 100,0	% 96,8
Euskara	% 3,0	% 0,9	% 7,5	---	---
Antzera bi hizkuntzak	% 4,7	% 4,4	% 37,7	---	---
Beste hizkuntza bat	% 2,2	% 2,4	---	---	% 3,0
Gaztelania eta atzerriko beste hizkuntza bat	% 0,2	% 0,1	---	---	% 0,2

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eremu mistoko biztanleak, bukatutako ikasketak gorabehera, errazago mintzatzen dira gaztelaniaz. Zehazki, eremu mistoko biztanleen % 90ek egin du gaztelaniaren alde, errazago mintzatzen den hizkuntzaz galdetu zaionean.

37. TAULA. ERRAZTASUN HANDIAGOAREKIN MINTZATUTAKO HIZKUNTZA, BUKATUTAKO IKASKETEN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu mistoa	Bukatutako ikasketak Eremu mistoa					
			Haur eta Lehen Hezkuntza	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Batxilergoa, Erdi Mailako Zikloa, Goi Mailako Zikloa	Diploma	Lizentzia	Graduondokoa, Doktoregoa, Masterra
Gaztelania	% 89,8	% 92,1	% 98,5	% 94,1	% 92,5	% 87,1	% 88,9	% 93,3
Euskara	% 3,0	% 0,9	% 0,8	% 0,6	% 0,4	% 1,3	% 1,7	% 1,7
Antzera bi hizkuntzak	% 4,7	% 4,4	% 0,8	% 3,1	% 4,1	% 9,4	% 7,1	---
Beste hizkuntza bat	% 2,2	% 2,4	---	% 2,0	% 2,7	% 2,1	% 2,3	% 5,0
Gaztelaniaz eta atzerriko beste hizkuntza bat	% 0,2	% 0,1	---	% 0,2	% 0,3	---	---	---

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

2.4. EREMU EZ-EUSKALDUNEKO BIZTANLEEN HIZKUNTZA-JAKINTZA

2.4.1. HIZKUNTZA-GAITASUNA

Eremu ez-euskalduneko biztanleen % 3,1 elebiduna da. Biztanle elebidun gehiago dago 25 urtetik 34era bitarteko adin-tartekoen artean. Eremu ez-euskalduneko adin handiagoko segmentuetan (55 urtetik gorakoetan), elebidunak edo elebidun hartzaileak askoz ere gutxiago dira.

Jarraian agertzen ditugun taulek hizkuntza-gaitasunari eta euskaraz jakiteari buruzko datuak jasotzen dituzte, adin-tarteak kontuan hartuta. Horri dagokionez, beharrezkoa da kontuan hartzea desagregazio-maila horretarako lagin-mugak daudela analisirako, neurriz kanpoko konfiantza-tarteak baitaude.

Gutxi	15,0 %	% 16,5	% 4,7	% 6,1	% 15,5	% 17,2	% 16,9	% 18,7
Ezer ez	29,3 %	% 20,3	% 6,2	% 6,3	% 24,9	% 15,9	% 42,5	% 32,2
Ez du zehaztu	1,1 %	% 1,5	% 0,7	% 1,2	% 0,5	% 1,2	% 2,2	% 1,9

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Eremu euskalduneko biztanle elebidunek euskararekiko ia erabateko interesa ageri dute: % 95,4k adierazi du euskararekiko oso edo nahiko interesa duela. Biztanle elebidun hartzaileen artean, ratio hori % 80koa da. Bestalde, euskara ez dakien eremu ez-euskalduneko biztanleen % 43,1ek euskararekiko interes handia duela adierazi du; biztanle horien herenak, aldiz, interes eskasa (txikia edo batere ez) adierazi du.

Eremu euskaldunean, interes horrek 2008tik izan duen garapena dela eta, sei hamarreneko gorakada ageri da biztanle elebidunen artean, eta beherakada elebidun hartzaileen (% 2) eta erdaldunen artean (ehuneko 6 puntu).


109. TAULA, 14. GRAFIKOARI DAGOKIONA . EUSKARAREKIKO INTERESA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA (% EREMU EUSKALDUNA)

	EREMU EUSKALDUNA		Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Ez euskaldunak	
	2008 (n=1.065)	2013 (n=1.252)	2008 (n=611)	2013 (n=772)	2008 (n=108)	2013 (n=128)	2008 (n=346)	2013 (n=350)
Handia	55,5 %	% 58,1	% 76,3	% 80,8	% 44,5	% 45,7	% 21,8	% 23,1
Nahikoa	23,3 %	% 18,6	% 18,6	% 14,7	% 37,5	% 34,2	% 27,2	% 20,0
Zertxobait	9,6 %	% 9,7	% 3,3	% 2,7	% 10,5	% 11,2	% 20,6	% 21,3
Gutxi	4,7 %	% 6,1	% 1,1	% 0,6	% 4,8	% 6,6	% 11,0	% 15,6
Ezer ez	6,2 %	% 6,3	% 0,5	% 0,6	2,7 %	% 1,7	% 17,6	% 17,7
Ez du zehaztu	0,7 %	% 1,2	% 0,2	0,7 %	---	0,6 %	% 1,7	% 2,3

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Adinari dagokionez, eremu euskaldunean, euskararekiko interesa nabarmen handiagoa da 15etik 34 urtera bitarteko biztanleen artean, eta txikiagoa 65 urte edo gehiago dituztenen artean. Interesak, batez ere, 35 urtetik beherakoetan egin du gora; aitzitik, nabarmen egin du behera, 10 puntu inguru, 55 urtetik gorakoan artean.

35. GRAFIKOA. EUSKARAREKIKO INTERESA, ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK. 2008 eta 2013 (%)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Eremu mistoan, euskararekiko interes handia dutela esan duten pertsona elebidunak % 93,1 dira 2013an; elebidun hartzaileak hartutakoen artean % 83,7; eta euskaraz ez dakitenen artean ez da biztanleen % 30,8ra iristen; interes txikia edo interesik ez dutela esan dutenak, aldiz, % 41,4 dira.

Eremu mistoan, 2008tik 2013ra igarotako bost urteetan, euskararekiko interesa handia eta nahikoa dutenak batuta, hizkuntza-gaitasunaren arabera hiru kategorietan egin du gora interesak: 7 hamarren elebidunen artean, ehuneko 3 puntu elebidun hartzaileen artean, eta % 2,1 erdaldunen artean.


110. TAULA, 16. GRAFIKOARI DAGOKIONA. EUSKARAREKIKO INTERESA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA (% EREMU MISTOA)

	Eremu mistoa		Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Ez euskaldunak	
	2008 (n=1.004)	2013 (n=1.072)	2008 (n=110)	2013 (n=147)	2008 (n=69)	2013 (n=112)	2008 (n=825)	2013 (n=809)
Handia	% 17,5	% 25,6	% 78,3	% 75,8	% 38,9	% 54,3	% 8,5	% 14,2
Nahikoa	% 21,1	% 18,0	% 14,0	% 17,3	% 41,9	% 29,4	% 20,2	% 16,6
Zertxobait	% 20,5	% 22,1	% 5,1	% 3,8	% 13,0	% 11,5	% 22,9	% 26,2
Gutxi	% 15,5	% 17,2	% 1,5	% 2,4	% 2,5	% 4,5	% 18,2	% 21,2
Ezer ez	% 24,9	% 15,9	% 1,0	% 0,7	% 3,7	% 0,3	% 29,5	% 20,2
Ez du zehaztu	% 0,5	% 1,2	---	---	---	---	% 0,6	% 1,6

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Adinaren arabera euskararekiko interesa dela eta, eremu mistoan, interesa nabarmen handiagoa da 25etik 34 urtera bitarteko adina dutenen geruzan. Euskarak interesik txikiena pizten duen adin-geruzak 15etik 24 urtera bitartekoenak eta 45etik 54 urtera bitartekoenak dira. Euskararekiko interesak nabarmen gora egin du 65 urte edo gehiagokoan segmentuan eta 25etik 34 urtera bitartekoen artean. Interes beharakada argia dago 45etik 54 urtera bitartekoen artean.

36. GRAFIKOA. EUSKARAREKIKO INTERESA, ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK. 2008 eta 2013 (%)




Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Eremu ez-euskaldunean, euskararekiko interes handia edo nahiko adierazi duten biztanleen portzentajea % 23,5koa da; aitzitik, interes eskasa edo interesik eza adierazi dutenena % 50,9koa da. Adin-tarteka, interesik txikiena 55etik 64 urtera bitartekoen artean ageri da, eta handiena 25etik 34 urtera bitartekoen artean.

Eremu ez-euskaldunean gora egin du euskararekiko batez besteko interesak: 2008ko azterketa soziolinguistikoa, % 3,1koa zen interesa eta 2013ko azterketa soziolinguistikoa, berri, % 3,7koa, batez beste. Interesak gora gehien egin duen adin-segmentua 65 urte edo gehiagokoena da; interesak behera egin du, aldiz, 15etik 24 urtera bitarteko pertsonen artean.


37. GRAFIKOA. EUSKARAREKIKO INTERESA, ADINAREN ARABERA. EREMU EZ-EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK. 2008 eta 2013 (%)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2008 urtea eta 2013 urtea

Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera euskararekiko interesaren azterketak adierazten du Ipar-mendebaldeko biztanleak direla interes handiena agertu dutenak. Aitzitik, Erribera Garaiko edo Tuteraldeko eremuetan, interes handia dutenak biztanleen % 5,9 eta % 6,8 dira, hurrenez hurren.

38. GRAFIKOA. EUSKARAREKIKO INTERESA, NAFARROAKO 2000. URTEKO ESKUALDEKATZEAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)




Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

ATZERRIKO HIZKUNTZAK

Atzerriko hizkuntzekiko interesa, handia edo nahikoa, euskararekiko antzemandakoa baino handiagoa da. Zehazki, ehuneko 18,6 puntu gehiago; %59,0k adierazi du interes handia atzerriko hizkuntzekiko, euskararekiko %40,4ren aldean. Inkestatuen %19,7k erdi-mailako interesa agertu du atzerriko hizkuntzekiko, eta %20,2k txikia edo batere ez.

Hizkuntza horiekiko interesa, handia edo nahikoa, nabarmen handiagoa da eremu euskaldunean (%61,7k agertu du interes handia edo nahikoa), eta eremu mistoan (%62,5ek agertu du interes handia edo nahikoa).

39. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZEKIKO INTERESA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOA)




Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Ondoren, erantzuteko aukerak 0tik 10erako eskala bihurtu ziren, non 0k inongo interesik ez adierazten duen, eta 10ek interes handia.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Atzerriko hizkuntzekiko interesak gora egiten du biztanleen adina txikiagoa den neurrian. Atzerriko hizkuntzekiko interesa, handia edo nahikoa, %72,3ko ratoria iristen da 15etik 24 urtera bitarteko biztanleetan; 65 urtetik gorako biztanleetan, aldiz, %45,8koa da. 44 urtetik gora ageri da atzerriko hizkuntzekiko interesaren beherako joera.

40. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZEKIKO INTERESA, ADINAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)




Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Ondoren, erantzuteko aukerak 0tik 10erako eskala bihurtu ziren, non 0k inongo interesik ez adierazten duen, eta 10ek interes handia.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Biztanle elebidunen % 76,3k esan du interes handia edo nahikoa duela atzerriko hizkuntzekiko; biztanle elebidun hartzaileen % 66,0k; eta biztanle erdaldunen % 55,4k.

41. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZEKIKO INTERESA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)




Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Ondoren, erantzuteko aukerak 0tik 10erako eskala bihurtu ziren, non 0k inongo interesik ez adierazten duen, eta 10ek interes handia.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Ipar-mendebaldeko eta Iruñerriko biztanleak dira atzerriko hizkuntzekiko interes handiagoa dutela esan dutenak. Aitzitik, Erribera Garaiko biztanleak dira atzerriko hizkuntzekiko interes txikiagoa dutela esan dutenak.

42. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZEKIKO INTERESA, NAFARROAKO 2000. URTEKO ESKUALDEKATZEAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)




Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Ondoren, erantzuteko aukerak 0tik 10erako eskala bihurtu ziren, non 0k inongo interesik ez adierazten duen, eta 10ek interes handia.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Eremu euskaldunean, atzerriko hizkuntzekiko interes handiagoa, nabarmen handiagoa da, honako adin-tarteetan: 15etik 24 urtera bitartean (7,5eko batez bestekoa, 0tik 10erako balorazio-eskalan); 25etik 34 urtera bitartean (7,6ko batez bestekoa, 0tik 10erako balorazio-eskalan); 35etik 44 urtera bitartean (7,5eko batez bestekoa, 0tik 10erako balorazio-eskalan).

43. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZEKIKO INTERESA, ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEN BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)




Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Ondoren, erantzuteko aukerak 0tik 10erako eskala bihurtu ziren, non 0k inongo interesik ez adierazten duen, eta 10ek interes handia.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Eremu euskalduneko biztanle elebidunek interes handiagoa adierazi dute atzerriko hizkuntzekiko (% 71,0k esan du oso edo nahiko interesatuta dagoela), adibidez, biztanle erdaldunek baino (% 44,5ek esan du oso edo nahiko interesatuta dagoela).

44. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZEKIKO INTERESA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)




Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Ondoren, erantzuteko aukerak Otik 10erako eskala bihurtu ziren, non 0k inongo interesik ez adierazten duen, eta 10ek interes handia.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Eremu mistoan, atzerriko hizkuntzekiko interesak eremu euskaldunari buruz aipatutako eskema bera errepikatzen du. Eremu mistoko biztanle gazteenak dira atzerriko hizkuntzekiko interes handiagoa azaldu dutenak; bestalde, eremu mistoko biztanle elebidunek atzerriko hizkuntzekiko interes handiagoa agertu dute, eremu euskalduneko edo ez-euskaldunekoek baino.


45. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZEKIKO INTERESA, ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)



Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Ondoren, erantzuteko aukerak Otik 10erako eskala bihurtu ziren, non 0k inongo interesik ez adierazten duen, eta 10ek interes handia.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

46. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZEKIKO INTERESA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)




Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Ondoren, erantzuteko aukerak 0tik 10erako eskala bihurtu ziren, non 0k inongo interesik ez adierazten duen, eta 10ek interes handia.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Azkenik, **eremu ez-euskaldunean**, Nafarroako Foru Erkidegoko beste hizkuntza-eremuetan gertatzen den bezala, biztanle gazteenak dira atzerriko hizkuntzekiko interes handiena agertu dutenak.

47. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZEKIKO INTERESA, ADINAREN ARABERA. EREMU EZ-EUSKALDUNEN BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)



Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. Ondoren, erantzuteko aukerak 0tik 10erako eskala bihurtu ziren, non 0k inongo interesik ez adierazten duen, eta 10ek interes handia.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea


5.2. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN EUSKARAK DUEN TRATAERAREN BALORAZIO OROKORRA

Administrazio Publikoak euskarari buruz darabilen politika publikoak —zehazki, zer-nola erabiltzen den euskara eguneroko jardun publikoetan— erabakigarriak dira alderdi askotan (hizkuntzaren prestigioan, normalizazioan...).

Orokorrean, Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen % 18,3k uste du Administrazio Publikoak ez duela euskara nahikorik erabiltzen; biztanleen % 40,4k nahikoa dela esan du; eta % 7,0k gehiegizkoa dela adierazi du.

Eremu euskaldunean, pertzepzioa kritikoagoa da eremu ez-euskaldunean baino. Hala, eremu euskalduneko % 26,1ek dio Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazio Publikoek ez dutela gaur egun euskara nahikorik erabiltzen. Administrazio Publikoek euskara nahikorik erabiltzen ez dutela hautematen dutenen kopurua erdira jaisten da eremu ez-euskaldunean (% 12,8).

48. GRAFIKOA. NAFARROAKO FORU ERKIDEGOKO AMINISTRAZIO PUBLIKOETAN EUSKARAREN ERABILERAREN BALORAZIO OROKORRA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)



Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. 1etik 5erako eskala, non 1 ez nahikoa den, eta 5 gehiegizkoa.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Jarraian adieraziko dugu zein diren Nafarroako Foru Erkidegoko administrazio publikoetan **euskara nahiko** erabiltzen dela baloratzeko joera duten nafar biztanleen segmentu edo geruzak:

- Lehen mailako ikasketak, lizentzia edo doktoregoa, graduondoa, masterra duten biztanleak.
- Eremu ez-euskalduneko biztanleak (zerbait gehiago eremu horretako 45etik 54 urtera bitarteko biztanleak).
- Estellerriko eta Ekialdeko Erdialdeko biztanleak.

- Hizkuntza-gaitasunaren arabera, beren burua ez euskalduntzat duten biztanleak.
- Guraso erdaldun elebakarrak dituzten biztanleak.

Beste alde batetik, jarraian azaltzen dugu zein diren Nafarroako Foru Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera gehiegizkoa dela hauteman duten Nafarroako Foru Erkidegoko segmentu edo geruzak.

- 64 urtetik gorako biztanleak.
- Eremu ez-euskalduneko biztanleak (batez ere, 34 urtetik gorakoetan da nabarmenagoa).

Eta, azkenik, hona hemen zein diren Nafarroako Foru Erkidegoko administrazio publikoek darabilten euskara nahiko ez dela gehien hauteman duten biztanleen segmentuak edo geruzak:

- 35 eta 64 urte bitarteko biztanleak edo zati bat.
- Diplomatura-ikasketak dituzten biztanleak, eta lizentzia dutenen zati bat.
- Eremu euskaldunekoak (hizkuntza-eremuaren arabera). Pertzepzio hori zabalduago dago hizkuntza-eremu horretako 25etik 64 urtera bitarteko biztanleen artean.
- Ipar-mendebaldekoak (Nafarroako 2000. urteko Eskualdekatzearen arabera).
- Haien hizkuntza-gaitasunaren arabera, elebidun edo elebidun hartzaile diren biztanleak.
- Haien gurasoak edo haietako bat elebiduna elebiduna duten biztanleak.


5.3. EUSKARAREN ERABILERAREN BALORAZIO OROKORRA, KUDEAKETA PUBLIKOKO HAINBAT ESPARRUTAN

BIDE-SEINALEAK

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen % 16,3k bide-seinaleetan euskararen erabilera nahikoa ez dela baloratzen du. Aitzitik, biztanleen % 8,4k uste du euskararen erabilera bide-seinaleetan gehiegizkoa dela.

Bide-seinaleetan euskararen erabilera eskasa dela hautematen duten biztanleak gehiago dira eremu euskaldunean (% 18,9) eta eremu mistoan (% 18,0), eremu ez-euskaldunean baino (% 12,7). Bestalde, Nafarroako Foru Erkidegoko hiru hizkuntza-eremuetan antzekoa dira bide-seinaleetan euskara gehiegi erabiltzen dela hautematen dutenen portzentajeak.

49. GRAFIKOA. EUSKARAREN ERABILERA BIDE-SEINALEETAN, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)



Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. 1etik 5erako eskala, non 1 ez nahikoa den, eta 5 gehiegizkoa.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Bide-seinaleetan euskara nahiko erabiltzen dela hautematen dutenen portzentajea handiagoa da honako profil hau duten biztanleen artean:

- 45etik 54 urtera bitarteko biztanleak.
- Lehen mailako ikasketak dituzten biztanleak, edo doktoregoa, graduondoa edo masterra dutenak.
- Eremu ez-euskaldunekoak.
- Estellerrikoak, Ekialdeko Erdialdekoak eta Erribera Garaikoak.
- Eta hizkuntza-gaitasunaren arabera, beren burua erdalduntzat duten biztanleak.

Bestalde, bide-seinaleetan euskara gehiegi erabiltzen dela gehiago hautematen da, gehiengoaren iritzia izan gabe ere, honako profil hau duten biztanleen artean:

- Pirinioaldea, Tuteralea eta Ekialdeko Erdialdeko biztanleen zati handi bat.

Azkenik, euskara nahiko erabiltzen ez dela hautematen dutenak gehiago ageri dira biztanle-profil honetan:

- Ipar-mendebaldeko, Pirinioaldeko edo Iruñerriko biztanleen zati baten, % 20 ingururen artean.
- Eremu euskalduneko eta mistoko biztanleen zati baten, % 20 ingururen artean.
- Lehen hizkuntza euskara izan duen biztanleen heren batentzat.

- Haien hizkuntza-gaitasunaren arabera, elebidun edo elebidun hartzaile diren biztanleen heren batentzat.


TOPONIMIA, LEKU-IZENAK

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen % 43,6k uste du toponimian euskara nahiko erabiltzen dela, % 11,7k dio nahiko ez dela, eta % 8,6k, aldiz, gehiegizkoa dela.

Toponimian edo leku-izenetan euskara nahiko erabiltzen dela hautematea zabalduago dago eremu ez-euskalduneko biztanleen artean (% 47,3) eta eremu mistoan (% 18,0), eremu euskalduneko biztanleen artean baino (% 35,7).

Eskalaren muturretan, nahikoa ez edo gehiegizkoa, ez da desberdintasun esanguratsurik ageri hizkuntza-eremuaren arabera.

50. GRAFIKOA. EUSKARAREN ERABILERA LEKU-IZENETAN, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)



Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. 1etik 5erako eskala, non 1 ez nahikoa den, eta 5 gehiegizkoa.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Toponimian edo leku-izenetan euskara nahiko erabiltzen dela hautematen dutenen ratioa % 50etik gorakoa da biztanleen honako segmentu edo geruza hauetan:

- Doktoregoa, graduondoa, masterra duten biztanleak.
- Lizarrerriko edo Ekialdeko Erdialdeko biztanleak.


Bestalde, toponimian edo leku-izenetan euskara nahiko erabiltzen ez dela hautematen dutenen ratioa % 20tik gorakoa da biztanleen honako segmentu edo geruza hauetan:

- Lehen hizkuntza euskara izan duen biztanleen artean.
- Euskaraz errazago aritzen direla esan duten biztanleen artean.
- Eta, hizkuntza-gaitasunaren arabera, elebidun edo elebidun hartzaile diren biztanleen artean.

ZERBITZU PUBLIKOEKIKO HARREMANAK

Eremu ez-euskalduneko biztanleak dira horri buruz neutralen agertu direnak (% 45,1ek adierazi du euskararen erabilera zerbitzu publikoekiko harremanetan nahiko dela). Aitzitik, euskararen erabilera zerbitzu publikoekiko harremanetan nahiko ez dela iritzi dioten biztanleen portzentaje handiena, eremu euskaldunean antzeman da (% 18,6). Erabilera eskasa dela iritzi diotenekin batera (% 18,9), % 37,5 era iristen dira, aipatutako eremuan.

51. GRAFIKOA. EUSKARAREN ERABILERA ZERBITZU PUBLIKOEKIKO HARREMANETAN, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)



Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. 1etik 5erako eskala, non 1 ez nahikoa den, eta 5 gehiegizkoa.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea.

Zerbitzu publikoekiko harremanetan euskara nahiko erabiltzen dela hautematen dutenen ratioa % 50etik gorakoa da biztanleen honako segmentu edo geruza hauetan:

- Doktoregoa, graduondoa, masterra duten biztanleak.
- Lizarrerriko edo Ekialdeko Erdialdeko biztanleak.

Aitzitik, euskara nahikoa erabiltzen ez dela hautematen dutenen ratioa % 20tik gorakoa da, honako hauen artean:


- Lehen hizkuntza euskara izan duen biztanleen artean.
- Euskaraz errazago aritzen dela esan duten biztanleen artean.
- Eta, hizkuntza-gaitasunaren arabera, elebidun edo elebidun hartzaile diren biztanleen artean.

LAN-ESKAITZA PUBLIKOAN EUSKARA JAKITEA

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen %36,9k hauteman du lan-eskaintza publikoetan euskara jakitearen balorazioa nahikoa dela. %15,4k esan du nahikoa ez dela, eta %8,1ek, aitzitik, gehiegizkoa dela iritzi du.

Erabilera nahikoa dela hautematen dutenen portzentajea, hizkuntza-eremuka, handiagoa da eremu ez-euskaldunean (%42,0), eremu euskaldunean baino (%32,1). Aitzitik, aldea hain nabarmena ez bada ere, euskararen erabilerarekin kritikoak direnen maila, lan-eskaintza publikoetan euskara jakitearen balorazioari dagokionez, nahikoa ez, zerbait handiagoa da eremu euskaldunean (%18,0), eremu ez-euskaldunean baino (%12,6).

52. GRAFIKOA. LAN-ESKAITZA PUBLIKOAN EUSKARA JAKITEAREN BALORAZIOA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)



Oharra: Erantzutako aukerak iradoki ziren. 1etik 5erako eskala, non 1 ez nahikoaz den, eta 5 gehiegizkoa.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Lan-eskaintza publikoetan euskara jakitea nahiko baloratzen dela hautematen dutenen portzentajea handiagoa da honako hauen artean (%45etik gertu, edo gehiago):

- 45etik 54 urtera bitarteko biztanleak.
- Doktoregoa, graduondoa, masterra duten biztanleak.
- Eremu ez-euskaldunekoak.
- Lizarrerriko edo Ekialdeko Erdialdeko biztanleak.

Lan-eskaintza publikoetan euskara jakitea gehiegi baloratzen dela hautematen dutenen portzentajea handiagoa da honako hauen artean Nafarroako Foru Erkidegoko batez bestekoa baino:

- Pirinioaldeko, Estellerriko edo Tuter aldeko biztanleak.

Eta bestetik, lan-eskaintza publikoetan euskara jakitea ez dela nahiko baloratzen hautematen dutenen portzentajea handiagoa da honako hauen artean Nafarroako Foru Erkidegoko batez bestekoa baino:


- Diplomatura-ikasketak dituzten biztanleen artean.
- Eremu euskalduneko artean.
- Lehen hizkuntza euskara izan duen biztanleen artean.
- Euskaraz errazago aritzen dela esan duten biztanleen artean.
- Eta, hizkuntza-gaitasunaren arabera, elebidun edo elebidun hartzaile diren biztanleen artean.

EUSKARA IRAKASKUNTZAN

Nafarroa Foru Erkidegoko biztanleen jarrera, horri dagokionez, zentrala da. % 40,3ren ustez, nahikoa da euskararen presentzia irakaskuntzan. Jarrera kritikoak, bai gutxiegi delako bai gehiegizkoa delako, nahiko parekoak dira. Hala, Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen % 12,8k esan du euskarak ez duela presentzia nahikorik irakaskuntzan, eta % 8,3k gehiegizkoa dela esan du.

Eremu mistoko eta eremu ez-euskalduneko biztanleen pertzepzioa berdintsua da gai horretan. Biztanleen multzo edo segmenturik handienak balorazio neutroa du, nahikoa. Are gehiago, eremu euskaldunean, euskararen presentzia irakaskuntzan gehiegizkoa dela iritzi dioten biztanleek beste bi eremuetan antzemandako ratioa gainditzen dute.

53. GRAFIKOA. EUSKARAREN IRAKASKUNTZAREN BALORAZIOA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (% ETA BATEZ BESTEKOAK)




Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. 1etik 5erako eskala, non 1 ez nahikoa den, eta 5 gehiegizkoa.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Euskararen erabilera irakaskuntzan nahikoa dela hautematen dutenen portzentajea handiagoa da 45etik 54 urtera bitarteko adin-tartean. Pertzepzio hori ez da hain orokorra 25etik 34 urtera bitartekoen adin-segmentuan (% 35,2).

54. GRAFIKOA. EUSKARAREN IRAKASKUNTZAREN BALORAZIOA, ADINAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)



Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. 1etik 5erako eskala, non 1 ez nahikoa den, eta 5 gehiegizkoa.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Euskarak irakaskuntzan duen presentziaren balorazioa aztertuta, komeni da sakonago aztertzea zein den biztanleen pertzepzioa euskarak eskola publikoetan duen hedapenari buruz.

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen % 69,5ek esan du irakaskuntza euskaraz Nafarroako Foru Erkidego osoan eskaintzearen aldeko dela. % 12,5ek eskaintza eremu euskaldunera mugatu du, eta % 7,1ek eremu mistora ere hedatu du, hau da, eremu mistora eta eremu euskaldunera.

Nafarroako Foru Erkidego osoan eskola publikoan irakaskuntza euskaraz izateko eskaera zeharkakoa da hizkuntza-eremuetan, nahiz eta eremu euskaldunean nabarmenagoa, orokorragoa izan (% 78,4).

111. TAULA. IRAKASKUNTZA EUSKARAZ, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza- eremua		
		Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna
Nafarroa osoan	% 69,5	% 78,4	% 71,5	% 63,2
Eremu euskaldunean	% 12,5	% 9,1	% 11,3	% 15,4
Eremu euskaldunean eta mistoan	% 7,1	% 3,8	% 9,0	% 5,0
Inon ez	% 2,6	% 0,8	% 1,9	% 4,4
Ez du zehaztu	% 8,3	% 7,9	% 6,3	% 11,9

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Irakaskuntza euskaraz Nafarroako Foru Erkidego osora hedatzea orokorragoa da, % 70eko ratioa gaindituta, 55 urtetik beherako biztanleen artean.

112. TAULA. IRAKASKUNTZA EUSKARAZ, ADINAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Adina					
		15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Nafarroa osoan	% 69,5	% 71,2	% 74,2	% 71,5	% 74,2	% 65,3	% 61,7
Eremu euskaldunean	% 12,5	% 11,2	% 11,2	% 13,7	% 12,3	% 14,4	% 11,9
Eremu euskaldunean eta mistoan	% 7,1	% 11,6	% 6,2	% 7,8	% 6,5	% 6,7	% 5,6
Inon ez	% 2,6	% 2,3	% 1,4	% 2,1	% 1,8	% 3,3	% 4,5
Ez du zehaztu	% 8,3	% 3,8	% 7,0	% 4,9	% 5,3	% 10,3	% 16,3

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Irakaskuntza euskaraz Nafarroako Foru Erkidego osoko eskola publikoetara hedatzearen aldeko iritzia erdaldunen artean ere nagusi da (% 64,3).


113. TAULA. IRAKASKUNTZA EUSKARAZ, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza- gaitasuna		
		Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Ez euskaldunak
Nafarroa osoan	% 69,5	% 88,3	% 86,9	% 64,3
Eremu euskaldunean	% 12,5	% 3,0	% 5,4	% 14,9
Eremu euskaldunean eta mistoan	% 7,1	% 4,0	% 6,0	% 7,8
Inon ez	% 2,6	% 0,5	% 0,8	% 3,1
Ez du zehaztu	% 8,3	% 4,1	% 0,9	% 9,8

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Irakaskuntza euskaraz Nafarroako Foru Erkidego osoko eskola publikoetara hedatzearen aldeko, eremu mistoko biztanleak dira, adinaren arabera, konpentsatuen, orekatuen daudenak. Aitzitik, eremu euskaldunean, desoreka handiagoa antzematen da segmentu gazteagoen eta helduagoen edo nagusiagoen artean. Eremu ez-euskaldunean, pertzepzio hori nagusi bada ere, 55 urtetik gora, apaldu egiten da euskarazko irakaskuntza Nafarroako Foru Erkidego osora hedatzearen aldeko jarrera.

55. GRAFIKOA. NAFARROAKO FORU ERKIDEGO OSOAN IRAKASKUNTZA EUSKARAZ EGOTEAREN ALDEKO JARRERA. EREMU EUSKALDUNA, EREMU MISTOA ETA EREMU EZ-EUSKALDUNA




Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Euskara sustatzeko diru-laguntzak nahikoak ez direla uste du Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen % 23,7k. Aitzitik, % 6,4ren arabera, diru-laguntza horiek gehiegizkoak dira, eta % 31,1 neutrala da, hau da, nahikotzat jotzen ditu.

Euskara sustatzeko diru-laguntzena da, ekimen publikoaren esparruan, Nafarroako Foru Erkidegoko iritzi publikoan zatiketa gehien sortzen duena. Hizkuntza-eremu desberdinak kontuan hartuta, eremu euskalduneko biztanleen % 37,2k eta eremu mistoko biztanleen % 25,2k uste du diru-laguntza horiek ez direla nahikoak. Aitzitik, eremu ez-euskalduneko biztanleen % 39,8k euskara sustatzeko diru-laguntzak nahikoak direla iritzi dio.

56. GRAFIKOA. EUSKARA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZEN BALORAZIOA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)



Oharra: Erantzuteko aukerak iradoki ziren. 1etik 5erako eskala, non 1 ez nahikoa den, eta 5 gehiegizkoa.

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Euskarak diru-laguntza nahiko duela hautematen dutenen portzentajea % 35tik gorakoa da biztanleen honako geruza hauetan:

- 45etik 54 urtera bitarteko biztanleak.
- Lehen mailako ikasketak edo doktoregoa, graduondoa, masterra duten biztanleak.
- Hizkuntza-eremu ez-euskaldunekoak.
- Estellerrikoak, Ekialdeko Erdialdekoak eta Erribera Garaikoak, eta Tuteraldekoak.
- Eta, hizkuntza-gaitasunaren arabera, erdaldun diren biztanleen artean.

Aitzitik, euskarak diru-laguntza nahiko ez duela hautematen dutenen portzentajea % 30tik gorakoa da biztanleen honako geruza hauetan:

- 35etik 44 urtera bitarteko biztanleak.
- Eremu euskaldunekoak.
- Ipar-mendebaldeko biztanleak.
- Lehen hizkuntza euskara izan duten biztanleak.
- Euskaraz errazago aritzen dela esan duten biztanleak.
- Hizkuntza-gaitasunaren arabera, elebidun edo elebidun hartzaile diren biztanleak.

5.4. EUSKARAREN GARAPENERAKO INTERES-ESPARRUAK

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen iritziz, euskararen garapenak bi erritmo beharko lituzke:

- Lehenik, Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen % 34,9k uste du ez litzatekeela mugarik egon behar euskararen garapenerako (esparru guztietan).
- Bigarrenik, iradokitako esparruen artean, hiru dira erantzun-portzentaje gehien dutenak: irakaskuntza (% 36,2); zerbitzu publikoak, oro har (% 17,9); eta jarduera kulturalak (% 13,0), (esparru espezifikoak).
- Eta, azkenik, biztanleen segmentu txikia bada ere, badaude esparru horietan euskara garatzearen aurka daudenak (% 10,4).

Eremu euskalduneko biztanleak dira euskara esparru guztietan gara dadin azpimarratzen dutenak (% 51,5). Eremu mistoko biztanleen artean, batzuk euskara esparru guztietan hedatzearen alde agertu dira (% 37,1), eta beste batzuek, aldiz, irakaskuntza lehenesten dute (% 36,2). Azkenik, eremu ez-euskalduneko biztanleek irakaskuntzaren esparrua lehenesten dute, euskara sustatu eta garatzeko (aipuetako % 38,2).

114. TAULA. EUSKARAREN GARAPENERAKO ESPARRUAK, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA.
NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (% ERANTZUN ANITZEKO)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza-eremua		
		Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez- euskalduna
Irakaskuntzan	% 36,2	% 30,2	% 36,2	% 38,2
Zerbitzu publikoetan oro har	% 17,9	% 14,3	% 20,4	% 14,9
Kultura jardueretan	% 13,0	% 8,1	% 16,2	% 9,4
Komunikabideetan	% 10,4	% 9,8	% 12,9	% 6,5
Gizarte bizitzan, kalean, harremanetan	% 9,0	% 8,4	% 10,7	% 6,5
Dendetan	% 6,8	% 7,7	% 8,1	% 4,2
Aisialdiko tokietan	% 6,6	% 6,0	% 8,0	% 4,4
Lantokietan	% 5,8	% 3,1	% 7,5	% 3,8
Elizan eta erlijio zentroetan	% 2,7	% 1,9	% 3,7	% 1,3
Beste batzuetan	% 0,5	% 0,2	% 0,4	% 0,7
Guztietan	% 34,9	% 51,5	% 37,3	% 25,7
Inon ere ez	% 10,4	% 3,1	% 7,7	% 17,2
Berdin zaio	% 0,3	---	% 0,4	---
Ez daki	% 3,7	% 5,4	% 3,2	% 4,1
Ez du zehaztu	% 0,6	% 0,9	% 0,7	% 0,4

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2012. urtea

Biztanleen adin-geruza guztiek, ñabardurak ñabardura, oso antzera baloratzen dute zein diren euskara garatzeko esparru interesgarriak. Biztanleen hizkuntza-gaitasunak, aldiz, desberdintasun sakonagoak ekartzen ditu. Hala, biztanle elebidunek (% 61,1) eta elebidun hartzaileek (% 57,6) azpimarratzen dute euskara esparru guztietan garatu beharra dagoela; aitzitik, biztanle ez-euskaldunek irakaskuntzan jarri dute arreta (aipamenen % 38,0), euskararen garapenaren kontrako jarrera gehienak dituen taldea izan arren.

115. TAULA. EUSKARAREN GARAPENERAKO ESPARRUAK, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (% ERANTZUN ANITZEKO)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza- gaitasuna		
		Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Ez euskaldunak
Irakaskuntzan	% 36,2	% 29,6	% 32,7	% 38,0
Zerbitzu publikoetan oro har	% 17,9	% 18,2	% 15,0	% 18,3
Kultura jardueretan	% 13,0	% 14,9	% 12,0	% 12,8
Komunikabideetan	% 10,4	% 16,7	% 11,6	% 9,3
Gizarte bizitzan, kalean, harremanetan	% 9,0	% 13,0	% 8,1	% 8,5
Dendetan	% 6,8	% 10,3	% 7,2	% 6,1
Aisialdiko tokietan	% 6,6	% 8,8	% 8,0	% 6,1
Lantokietan	% 5,8	% 7,7	% 7,1	% 5,3
Elizan eta erlijio zentroetan	% 2,7	% 2,9	% 2,7	% 2,7
Beste batzuetan	% 0,5	---	% 0,1	% 0,6
Guztietan	% 34,9	% 61,1	% 57,6	% 28,0
Inon ere ez	% 10,4	% 1,1	% 2,5	% 12,5
Berdin zaio	% 0,3	---	---	% 0,3
Ez daki	% 3,7	% 1,5	% 0,3	% 4,5
Ez du zehaztu	% 0,6	% 0,2	% 0,1	% 0,7

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eremu euskaldunean, euskara esparru guztietan garatzeko eskaera orokorragoa da 25etik 34 urtera bitartekoen artean (% 63,8). Adin-geruza guztietan, 64 urte baino gorakoetan salbu, jarrera hori ageri da diskurtsoan: biztanleen % 50eko erantzunak.

116. TAULA. EUSKARAREN GARAPENERAKO ESPARRUAK, ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEO BIZTANLEAK (% ERANTZUN ANITZEKO)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Adina Eremu euskalduna					
			15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Irakaskuntzan	% 36,2	% 30,2	% 36,8	% 26,8	% 35,0	% 35,1	% 23,0	% 26,5
Zerbitzu publikoetan oro har	% 17,9	% 14,3	% 20,9	% 16,8	% 15,0	% 10,1	% 14,1	% 12,5
Kultura jardueretan	% 13,0	% 8,1	% 12,4	% 11,1	% 9,4	% 5,4	% 7,6	% 5,4
Komunikabideetan	% 10,4	% 9,8	% 15,5	% 12,0	% 10,4	% 10,1	% 6,6	% 7,5
Gizarte bizitzan, kalean, harremanetan	% 9,0	% 8,4	% 13,2	% 9,5	% 11,4	% 7,1	% 5,2	% 6,0
Dendetan	% 6,8	% 7,7	% 13,3	% 9,9	% 8,7	% 4,1	% 5,4	% 7,3
Aisialdiko tokietan	% 6,6	% 6,0	% 9,8	% 8,3	% 6,7	% 3,7	% 5,4	% 4,6
Lantokietan	% 5,8	% 3,1	% 4,6	% 3,1	% 2,9	% 1,1	% 3,5	% 3,7
Elizan eta erlijio zentroetan	% 2,7	% 1,9	% 1,1	% 1,7	% 0,6	% 0,7	% 2,2	% 4,1
Beste batzuetan	% 0,5	% 0,2	---	---	% 0,5	---	% 0,5	---
Guztietan	% 34,9	% 51,5	% 50,9	% 63,8	% 48,1	% 50,4	% 55,1	% 45,4
Inon ere ez	% 10,4	% 3,1	% 0,6	% 1,6	% 1,8	% 3,6	% 5,8	% 4,4
Berdin zaio	% 0,3	---	---	---	---	---	---	---
Ez daki	% 3,7	% 5,4	---	% 2,4	% 2,0	% 4,2	% 4,5	% 13,8
Ez du zehaztu	% 0,6	% 0,9	---	---	% 1,1	---	% 1,6	% 2,0

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eremu mistoan, euskara orokortzeko eskaera, haren garapena esparru guztietara hedatzekoa, nabarmenagoa da 25etik 64 urtera bitarteko adin-geruzetan. Biztanle-multzo handi horretan, eskaerak aipuen % 40 lortu du.

117. TAULA. EUSKARAREN GARAPENERAKO ESPARRUAK, ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (% ERANTZUN ANITZEKO)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu mistoa	Adina Eremu mistoa					
			15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Irakaskuntzan	% 36,2	% 36,2	% 37,3	% 35,3	% 35,3	% 35,1	% 37,9	% 37,0
Zerbitzu publikoetan oro har	% 17,9	% 20,4	% 23,5	% 24,4	% 25,3	% 15,7	% 22,8	% 12,5
Kultura jardueretan	% 13,0	% 16,2	% 19,1	% 19,0	% 18,7	% 16,5	% 13,2	% 11,1
Komunikabideetan	% 10,4	% 12,9	% 12,1	% 17,1	% 15,9	% 7,4	% 15,5	% 9,8
Gizarte bizitzan, kalean, harremanetan	% 9,0	% 10,7	% 13,3	% 14,2	% 11,4	% 6,6	% 11,8	% 8,0
Dendetan	% 6,8	% 8,1	% 11,0	% 10,6	% 8,0	% 4,8	% 9,7	% 5,9
Aisialdiko tokietan	% 6,6	% 8,0	% 11,2	% 11,4	% 6,4	% 7,6	% 7,6	% 5,0
Lantokietan	% 5,8	% 7,5	% 9,2	% 9,2	% 7,9	% 5,9	% 7,6	% 5,9
Elizan eta erlijio zentroetan	% 2,7	% 3,7	% 3,3	% 3,6	% 2,8	% 4,0	% 6,1	% 3,3
Beste batzuetan	% 0,5	% 0,4	% 0,4	---	---	% 0,9	---	% 0,9
Guztietan	% 34,9	% 37,3	% 34,7	% 39,6	% 39,3	% 38,4	% 38,7	% 33,0
Inon ere ez	% 10,4	% 7,7	% 6,0	% 4,8	% 4,4	% 6,6	% 11,8	% 12,4
Berdin zaio	% 0,3	% 0,4	---	---	% 0,6	% 0,9	% 0,7	% 0,4
Ez daki	% 3,7	% 3,2	% 1,1	% 2,9	% 3,0	% 3,2	% 1,4	% 5,9
Ez du zehaztu	% 0,6	% 0,7	---	% 1,1	---	---	---	% 2,4

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eta **eremu ez-euskaldunean**, 15etik 24 urtera bitarteko biztanleen % 54,8k irakaskuntza nabarmendu du euskara garatzeko esparru nagusi gisa. Iritzi hori, euskara eta irakaskuntza lotzea euskararen garapenerako esparru nagusi gisa, adin-segmentu guztietan errepikatu da.

118. TAULA. EUSKARAREN GARAPENERAKO ESPARRUAK, ADINAREN ARABERA. EREMU EZ-EUSKALDUNEN BIZTANLEAK (% ERANTZUN ANITZEKO)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu ez-euskalduna	Adina Eremu ez-euskalduna					
			15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Irakaskuntzan	% 36,2	% 38,2	% 54,8	% 37,8	% 39,1	% 35,8	% 42,7	% 28,8
Zerbitzu publikoetan oro har	% 17,9	% 14,9	% 11,0	% 22,3	% 10,8	% 16,2	% 11,3	% 16,2
Kultura jardueretan	% 13,0	% 9,4	% 14,1	% 22,0	% 7,9	% 7,4	% 7,7	% 1,7
Komunikabideetan	% 10,4	% 6,5	% 8,0	% 11,7	% 7,0	% 5,8	% 1,2	% 5,4
Gizarte bizitzan, kalean, harremanetan	% 9,0	% 6,5	% 9,5	% 12,0	% 3,0	% 8,2	% 4,1	% 4,3
Dendetan	% 6,8	% 4,2	% 6,7	% 12,8	% 1,7	% 4,4	% 1,2	% 0,7
Aisialdiko tokietan	% 6,6	% 4,4	% 4,7	% 11,8	% 1,7	% 4,4	% 3,7	% 1,6
Lantokietan	% 5,8	% 3,8	% 9,2	% 8,3	% 2,6	% 3,4	% 1,2	% 0,7
Elizan eta erlijio zentroetan	% 2,7	% 1,3	---	% 3,2	% 2,2	% 1,0	% 0,3	% 0,7
Beste batzuetan	% 0,5	% 0,7	---	---	% 0,9	---	---	% 2,5
Guztietan	% 34,9	% 25,7	% 25,7	% 22,9	% 32,5	% 28,6	% 19,0	% 23,4
Inon ere ez	% 10,4	% 17,2	% 4,9	% 13,2	% 22,8	% 17,5	% 19,0	% 19,7
Berdin zaio	% 0,3	---	---	---	---	---	---	---
Ez daki	% 3,7	% 4,1	% 2,2	% 1,0	% 1,8	% 4,2	% 1,2	% 11,3
Ez du zehaztu	% 0,6	% 0,4	---	---	---	% 1,5	% 1,2	---

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

5.5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN BEHARRA

Ekintza publiko eraginkortzat jo da euskara aisiako eta denbora libreko jardueren bitartez sustatzea, Nafarroako Foru Erkidegoaren biztanleen arabera «behar» bat da.

Eskaera hori, biztanleen pertzepzio hori, zeharkakoa da Nafarroako Foru Erkidego guztian, adina, hizkuntza-eremuak edo hizkuntza-gaitasunak gorabehera.

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleen % 58,2k beharrezko ikusi du euskararen erabilera sustatzea helburu duten aisia eta denbora libreko jarduerak abian jartzea.

Euskara sustatzeko, denbora librearen eta aisiaren esparruan ekintza eta politika publikoak abian jartzeko eskaera nabarmenagoa da eremu euskalduneko biztanleen artean (% 73,0), eremu ez-euskalduneko biztanleen artean baino (% 50,0). Eremu mistoko biztanleen jarrera Nafarroako Foru Erkidegoko batez bestekoaren parekoa da (% 60,3).


119. TAULA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN BEHARRA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza- eremua		
		Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna
Bai	% 58,2	% 73,0	% 60,3	% 50,0
Ez	% 25,8	% 15,8	% 24,6	% 31,0
Ez du zehaztu	% 16,0	% 11,2	% 15,1	% 19,0

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Biztanleen adin-tarte gazteenak agertzen dira gehien euskararen aldeko halako ekimenen alde, hots, 34 urtetik beherakoak. Zehazki, biztanleen adina zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta handiagoa da esparru horretan euskararen aldeko politika publikoak abian jartzearen aldeko babesa.

57. GRAFIKOA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN BEHARRA, ADINAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanle elebidunen eta elebidun hartzaile ia guztiak agertu dira denbora librean eta aisian euskara sustatzeko ekintzen alde. Are gehiago, biztanle erdaldunen % 50,5ak ere adierazi du mota horretako ekimenen alde dagoela.


120. TAULA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN BEHARRA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Hizkuntza- gaitasuna		
		Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Ez euskaldunak
Bai	% 58,2	% 85,4	% 87,1	% 50,5
Ez	% 25,8	% 6,4	% 10,0	% 30,7
Ez du zehaztu	% 16,0	% 8,3	% 2,8	% 18,8

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Eremu euskaldunean, Nafarroako Foru Erkidegorako aipatu den eskema bera ageri da, hau da, mota horretako ekimen bati buruzko interesa handiagoa da adin txikiagoko segmentuetan, eta bestetik, biztanle elebidunen eta elebidun hartzaileen artean.

58. GRAFIKOA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN BEHARRA, ADINAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK (%)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea


121. TAULA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN BEHARRA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EREMU EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Hizkuntza- gaitasuna		
			Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Ez euskaldunak
Bai	% 58,2	% 73,0	% 85,2	% 73,6	% 51,7
Ez	% 25,8	% 15,8	% 6,5	% 18,6	% 30,9
Ez du zehaztu	% 16,0	% 11,2	% 8,3	% 7,8	% 17,3

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea

Eremu mistoan, adinaren arabera aldeen ez dute eremu euskaldunean aipatu progresioa erakusten. 25etik 34 urtera bitarteko biztanleak izan dira beste adin-geruzek baino interes handiagoa adierazi dutenak. Bestalde, aipatu beharra dago eremu mistoko erdaldunen % 52,5 euskararen sustapenerako politika publiko mota hori abian jartzearen aldekoa dela.

59. GRAFIKOA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN BEHARRA, ADINAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa. 2013 urtea


122. TAULA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN BEHARRA, HIZKUNTZA-GAITASUNAREN ARABERA. EREMU MISTOKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu mistoa	Hizkuntza- gaitasuna		Eremu mistoa
			Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Ez euskaldunak
Bai	% 58,2	% 60,3	% 85,8	% 90,3	% 52,5
Ez	% 25,8	% 24,6	% 7,3	% 8,4	% 29,4
Ez du zehaztu	% 16,0	% 15,1	% 6,9	% 1,3	% 18,1

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Azkenik, **eremu ez-euskaldunean**, biztanleen adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da euskararen erabilera sustatzeko jarduera kulturalak, denbora librekoak... bultzatzearen aldekoen eta kontrakoen arteko aldea.

60. GRAFIKOA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO, AISIAKO ETA DENBORA LIBREKO JARDUEREN BEHARRA, ADINAREN ARABERA. EREMU EZ-EUSKALDUNEKO BIZTANLEAK (%)



Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

5.6. EUSKARAK KOMUNIKABIDEETAN DUEN PRESENTZIAREN BALORAZIOA

Nafarroako Foru Erkidegoko biztanleak, euskarak komunikabideetan duen presentziari dagokionez, bi talde handitan kokatzen dira. Alde batetik, euskarak komunikabideetan duen presentzia nahikoa dela uste dutenak; hamar nafarretik lau baino zerbait gehiago dira. Bestetik, oso antzeko proportzioan, presentzia hori nahikoa ez dela uste dutenak.

Eremu euskalduneko biztanleek, erdiak baino zerbait gehiagok, euskarak komunikabideetan duen presentzia nahiko ez dela baloratu du. Eremu mistoan, nolabaiteko oreka agertu da komunikabideetako presentzia hori nahikoa dela eta nahikoa ez dela uste dutenen artean. Azkenik, eremu ez euskaldunear, gehiago dira euskarak komunikabideetan duen presentzia nahikoa dela hauteman dutenak.

123. TAULA. EUSKARAK KOMUNIKABIDEETAN DUEN PRESENTZIAREN BALORAZIOA, HIZKUNTZA-EREMUAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu ez-euskalduna
Ez da nahikoa	% 38,3	% 55,4	% 40,7	% 28,8
Nahikoa	% 43,7	% 35,8	% 44,8	% 44,3
Gehiegizkoa	% 5,3	% 1,8	% 3,8	% 8,8
Ez du zehaztu	% 12,8	% 7,0	% 10,7	% 18,1

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

124. TAULA. EUSKARAK KOMUNIKABIDEETAN DUEN PRESENTZIAREN BALORAZIOA, ADINAREN ARABERA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO BIZTANLEAK (%)

	Nafarroako Foru Komunitatea	Adina					
		15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	65 urtetik gora
Ez da nahikoa	% 38,3	% 44,8	% 49,9	% 43,1	% 28,7	% 39,6	% 27,9
Nahikoa	% 43,7	% 48,3	% 38,2	% 44,8	% 57,2	% 36,7	% 38,0
Gehiegizkoa	% 5,3	% 2,1	% 2,7	% 4,6	% 2,8	% 8,3	% 9,7
Ez du zehaztu	% 12,8	% 4,9	% 9,2	% 7,6	% 11,2	% 15,4	% 24,4

Iturria: Euskararen egoera Nafarroan. Azterketa soziolinguistikoa.2013 urtea

Euskarak komunikabideetan duen presentzia nahikoa dela baloratu da, neurri handiagoan, biztanleen geruza edo segmentu hauetan:

- 45etik 54 urtera bitarteko biztanleak.
- Eremu mistoko edo ez-euskaldunekoak. Zehazki, pertzepzio hori hamar puntu handiagoa da bi eremu horietan eremu euskaldunear antzemandakoa baino.

- Hizkuntza-gaitasunaren arabera, erdaldun diren biztanleak.
- Eta, gurasoetako bat ere elebiduna ez duten biztanleak.

Aitzitik, euskarak komunikabideetan duen presentzia nahikoa ez dela hauteman duten biztanleen geruzak honako hauek dira:

- Biztanle gazteak, batez ere 25etik 34 urtera bitartekoak.
- Batxilergoa, Erdi Maila, Goi Mailako Zikloak edo diplomatura duten biztanleak.
- Eremu euskalduneko biztanleak; zehazki, hizkuntza-eremu horretako biztanleen erdiak baloratu du nahikoa ez dela komunikabideetan duen presentzia.
- Ipar-mendebaldeko edo Pirinioaldeko biztanleak.
- Lehen hizkuntza euskara izan duten biztanleak.
- Euskaraz errazago aritzen direla esan duten biztanleak.
- Hizkuntza-gaitasunaren arabera, elebidun edo elebidun hartzaile diren biztanleak.
- Eta, haien gurasoak edo gurasoetako bat elebiduna duten biztanleak.